

**Erosketa eta Kontratazio
Publiko Berdea, baliabide
naturalak eta ekonomikoak
eraginkortasunez
erabiltzeko bidea.**



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Data:

© Ihobe S.A., 2012ko azaroa

Argitaratzailea: Ihobe, haurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. soilairua · 48011 Bilbao

Tel.: 900 15 08 64

Edukia: Dokumentu hau Ihobek egin du Ecoinstitut Barcelona enpresaren laguntzarekin.

Diseinua: Eñutt Comunicación S.L.

Itzulpena: Elhuyar



Liburu honen edukia, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira:
Aitortza-Merkataritzarako ez-lan eratorririk gabe 3.0 Unported (informazio
gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)



**Erosketa eta
Kontratazio Publiko
Berdea, baliabide
naturalak eta
ekonomikoak
eraginkortasunez
erabiltzeko bidea.**



AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA

TESTUINGURUA Zer egoeratan gaude?	8
EUROPAKO JARDUERA-ESPARRUA Baliabideak eraginkortasunez darabiltzan ekonomiarako bidean	8
EAEko JARDUERA-ESPARRUA Herstura eta eraginkortasuna, Eusko Jaurlaritzaren politiketan	8
KONTRATAZIO PUBLIKOAREN BETEKIZUNA	10
ESTRATEGIAK Zer estrategia ezar daitezke baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko?	12
1. estrategia Beharrianak behin baino gehiagotan pentsatzea, erosketak zertuz egiteko	14
2. estrategia Bizi-ziklo osoko eraginak eta kostuak kontuan hartzea	16
3. estrategia Kontratazioaren bidez ekoberrikuntza sustatzea	21
4. estrategia Eskualdeko garapena sustatzea ingurumenaren zein ekonomiaren arloetan	23
5. estrategia Erosketa bateratuak egitea, eraginkortasuna, aurrezpena eta ingurumen-onura bultzatzeko	27
6. estrategia Inbertsio pribatuak erakartzea, ingurumen-onura publikoa sustatzeko	29
ONDORIOAK Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea, baliabideak (naturalak zein ekonomikoak) eraginkortasun handiagoz erabiltze aldera	34



LABURPEN EXEKUTIBOA

Gaur egungo testuingurua

Jakina da baliabide naturalen gaineko presioa (ekosistemen gainekoa bame) gero eta handiagoa dela, eta etorkizunean biztanleriak hazten jarraituko duela. Beraz, Europar Batasunaren garapena eta lehiakortasuna bermatu beharra dago, eskualde guztien ongizatea eta hazkundera bultzatuz.

Horretarako, hurrengo hamar urteotako hazkunde-eredua zehaztu du Europar Batasunak, Europa 2020 Estrategian:

Hazkunde zentzudura: jakintzan eta berrikuntzan oinarritzea ekonomiaren garapena.

Hazkunde jasangarria: baliabideak eraginkortasun handiagoz darabiltzan ekonomia berdeagoa eta lehiakorragoa sustatzea.

Hazkunde bateratzailea: gizartea eta lurraldeak bateratzen dituen enplegu-maila altuko ekonomia sustatzea.

Ikuspegi horrekin bat egiten dugu Euskadin, eta halaxe eratu da EcoEuskadi 2020 garapen jasangarrirako estrategia, gure herriaren politikak eta planak bideratzeko baliabidea:

[...] egituratutako herrialdea, [...], gaur egungo ekoizpen sistema ekonomia berri, ekoeraginkor eta karbono gutxiko, lehiakor eta ireki, [...] bihurtzeko konpromiso aktiboa hartzen duten [...] etorkizun erakargarria eraikitzeko, eta planetaren eta bertako herritarren garapenarekin konprometitua.

Erosketa publiko berdearen funtsezko betekizuna

Baliabide naturalen erabileratik bananduz hazteko gai den ekonomia berde hori lortzeko, ezinbesteko bitartekoa da erosketa eta kontratazio publiko berdea (EKPB), eta halaxe aintzatetsi dute nazioartean eta gure eskualdeetan.

Hori lortzeko, funtsezkoa izan da:

1. Ingurumen-alderdia nola txerta daitekeen argitzea, kontratazio publikoaren lege-araudia kontuan hartuta.
2. Kontratazio publikoak ingurumenaren hobekuntzan eragiteko zer-nolako ahalmena duen, eta, beraz, kontratazio publikoak ingurumenaren arloko helburuak eta politikak betetzeko daukan eginkizuna ere aintzatestea.
3. Europar Batasuneko kideen sostengu politikoa, erosketa berdea sustatzeko ekintza-plan nazionalen bidez (gaur egun herrialdeen % 80k dituzte halako planak, Euskadi bame dela).
4. EKPBk berrikuntza sustatzeko duen ahalmenaren aintzatespena, gaitasun nahikoa baitu bai Europar Batasuneko hazkunde-lehentasanak sustatzeko eta, aldi berean, baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzeko.

Baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko erosketa berdeko estrategiak

Erosketa eta kontratazio publiko berdea lehiakortasuna eta garapen iraunkorra bermatzeko ezinbesteko baliabidea dela aitortu izan den arren, bada ekimen hori ezartzeko oztopo bat –are handiagoa krisi garaioan–: erosketa berdea garestiagoa delako ustea. Alabaina, uste hori gehiago da aurreiritzia egia baino.

Egiantan, xehe-xehe aztertuz gero, argi ikusten da kasu askotan aukera berdeak ohiko aukerak baino merkeagoak ere izan daitezkeela. Izan ere, prezioa ez da ezartzen, maiz, produktuen edo zerbitzuen ingurumen-ezaugarrien arabera; aitzitik, beste aldagai batzuk izaten dira tartean, hala nola enpresa-hornitzaileen merkataritza-estrategiak edo dena delako obra edo zerbitzu hori betetzeko inguruabar zehatzak.

Bigarrenik, hori esaten denean, eskuratze-kostuak soilik hartzen dira kontuan eta ez produktuzerbitzuek beren bizi-ziklo osoan administrazioari eragiten dizkioten benetako kostu osoak. Hori, baina, epe laburreko ikuskera zatikatuaren ondorioa besterik ez da. Ikuskera horri jarraikiz, bada, nekez egin ahal izango zaie aurre gaur egungo erronei, eta estrategia hori, beraz, ez zaio inondik ere eraginkorra egiten administrazioari.

EKPBak, aldiz, berezkoa du kontratazioari ikuspegi globaletik begiratzea, eta berezkoa du, halaber, haren bizi-ziklo osoa aintzat hartzea. Ikuspegi horrek, bada, ingurumena begirune handiagoz babesten duten irtenbideak topatzen laguntzen du, eta, aldi berean, eraginkortasuna sustatzen du, bai ingurumenaren aldetik, baliabide naturalak erabiltzeko unean, bai ekonomiarenetik, gastu publikoa kudeatzeko orduan.

Areago, kontratuen legean aurreikusitako beste mekanismo batzuekin konbinatzen bada EKPB, goren-gorenera iristen dira onura horiek, eta berrikuntza eta ekonomia berdearen garapena sustatzen da eskualde-mailan.

Hori guztia lortzeko bideak ugari dira, eta, maiz, bateragarriak ere bai. Hona hemen batzuk:

1. **Beharrianak behin baino gehiagotan pentsatzea, erosketak zentzuz egiteko.**

Erosketa berdearen estratégiaren barruan, gure benetako premiak zein diren eta eskuratutako produktu edo zerbitzuek sortutako eraginak nolakoak diren zehaztuta dugula, bestelako bide «berdeagoak» bila ditzakegu, kontuan hartuta bide berde horiek ez direla murrizketetan oinarritzen, baizik eta erosketak eta eskura dauden baliabideak hobeto kudeatzeko ekimenetan: gutxiago erosi; ahal beste berrerabili; produktuak kontratatu beharrean zerbitzuak kontratatu, eta, ohiko irtenbideetatik at, ingurumena hobeto zaintzen duten irtenbide berritzaileagoak hautatu.



2. Bizi-ziklo osoan dituzten eraginak eta kostuak kontuan hartzea.

Edozein produktu, obra edo zerbitzuz ondorio ekonomikoak ditu haren erabilera-bizia osoan, batik bat energia kontsumitzen badu edo mantentze-lana behar badu; horrelakoetan, beraz, estrategia ona izaten da bizi-ziklo osoko kostuak kalkulatzeko. Izan ere, estrategia baliagarria da hori, eraginkortasun ekonomikoari begira kontratazioan ingurumen-irizpideak bameratzea zeinen onuragarria den azaltzeko eta justifikatzeko, erosketa berdearen benetako onurak ikusteko aukera ematen baitu horrek, hasierako erosketa-kostu horretatik harago. Bizi-zikloaren alderdi horiek –irtenbideek ingurumenarekiko duten eraginari lotuak– ez badira kontuan hartzen, are bortitzagoak gertatzen dira irtenbide horien inpaktuak, eta, gainera, ez dira eraginkortasunez erabiltzen administrazioaren baliabide ekonomikoak.

3. Kontratazioaren bidez ekoberrikuntza sustatzea.

Europako eta Euskadiko estrategiekin bat, eraginkortasuna hobetzeko eta gaur egungo erronkei aurre egiteko, ingurumen-alderdia ezinbestekoa da edozein berrikuntza-mailatan, eta kontratazioa baliatu daiteke merkatuan ekoberrikuntzak garatzeko edo bameratzeko, ekoberrikuntza horiek administrazioaren beharrianak beteko baitituzte eta, aldi berean, onura nabarmenak eragin, bai ingurumenari bai ekonomiari dagokienez.

4. Tokian tokiko edo eskualdeko ekonomiaren eta ingurumenaren garapena sustatzea.

Europar Batasunaren arabera, enpresa txiki eta ertainak (ETEak) «Batasunaren ekonomiaren bizkarrezurra dira». Horrela, bada, bideak zabaldu behar dira, ETEak kontratazio publikoan bameratu ahal izateko. Izan ere, dinamika hori onuragarri zaio atzera ekonomiaren garapenari, tokian tokiko mailan batez ere. Gainera, erosketa eta kontratazio publiko berdeari esker eta ETEei kontratazio publikoan parte hartzeko aukera emanez, tokian tokiko garapena sustatzeaz gain, ingurumenean ere nabaria da onura, erkidego osoaren eta enpresen lehiakortasunaren mesedetan.

5. Erosketa bateratuen bidez eraginkortasuna berrmatzea.

EKPB ezartzeko era onuragarri bat erosketa bateratuak egitea da. Erosketa-bolumena handituz lortzen den aurrezpen ekonomikoa eta «erosketa berdea» bat eginda, emaitza hobekak lortzen dira, hots, ingurumen-kalitateko irtenbide hobekak baldintza hobeketan prozesu horretan parte hartzen duten erakunde guztientzat, baina, batez ere administrazio txikientzat, bestela nekez lor baitezakete eskaintzarik prezio lehiakorretan. «Erosketa bateratuek», gainera, eskaintza ekonomiko onenez baliatuta, onura ekonomikoak eragiteaz gain, kontratazio-prozesuen eraginkortasuna ere hobetzen dute oro har, administrazio-prozesuak ez baitira behin eta berriz errepikatzen eta, hartara, denbora gehiago uzten baitute irtenbide ekoberritzaileak topatzeko.

6. Baliabide pribatuak onura publikoaren mesedetan bideratzea.

Gerta liteke EKPBaren barruan baliabide naturalak eraginkortasun handiagoz erabiltzera –eta aldi berean, aurrezpen ekonomikoa lortzera– zuzendutako zenbait ekintzak kapital-inbertsio handiak behar izatea, itzulkin-tasa luze samarrek. Bada, dena den, ingurumen-eraginkortasuneko neurri horiek, bai inbertsioa egiteko unean bai epe luzean, ekonomikoki bideragarriak izateko modu egoki bat, hain zuzen ere, arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaz ezartzea da. Jardunbide horren erabilgarritasuna edo eraginkortasuna eremu batzuetan zalantzan jartzen bada ere, energia-zerbitzuen eremuan lor daitezke onurak ingurumenean zein ekonomian, arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako kontratuen bidez. Zerbitzu energetikoak kontratatzea, beraz, «erosketa berdearen» barruan jasotako beste estrategia bat da, ingurumenean dugun eragina murrizten laguntzen baitu, betiere eraginkortasunez ekonomiari dagokionez.

Azken batez, erosketa publiko berdearen bidez ezartzen ditugun mekanismoek eta planteamenduek ez dute herstura edo eraginkortasun ekonomikoaren aldeko politikien kontra egiten; aitzitik, sustatu egiten dituzte:

erosketa eta gastu publikoa (erreal eta osoa) hobeto kudeatzen laguntzen baitute, murrizketarik ezarri gabe,

ondorioek luzaro irauten baitute,

ingurumena beti babesten baita, eta, hartara, egun ingurumena kontuan ez izateak etorkizuneko ekarriko lituzkeen ondorio latz eta eragin ekonomiko kaltegarriak saihesten dira.



1. TESTUINGURUA

Zer egoeratan gaude?

1.1. EUROPAKO JARDUERA-ESPARRUA

Baliabideak eraginkortasunez darabiltzan ekonomiarako bidean

Garapen ekonomikoari esker egituraturako eredu sozialean, inoiz ez bezalako ongizatea lortu du Europako gizarteak; alabaina, lehengaien inportazioarekiko erabateko mendekotasuna ere ekarri du garapen-eredu horrek. Baliabide horien gaineko presioa gero eta handiagoa da; aurreikuspenen arabera, bestalde, munduko biztanleriak hazten jarraituko du; horrek guztiak, bada, kolokan jartzen du hornikuntzen segurtasuna.

Hauxe da, beraz, gaur egungo erronka: behar beste baliabide lortzeko modua bermatua izatea eta, aldi berean, baliabide horien sorburuko herrialdeei sozialki paretsu garatzeko bide ematea, betiere eragin kaltegarriak saihestuz, nola gizartearen gainekoak hala ingurumenaren gainekoak.

Europar Batasunaren hurrengo hamar urteotako hazkunde-estrategiak, hots, **Europa 2020 Estrategiak**¹, egoera horretaz oharturik, hazkunde-eredu «zentsuzko, iraunkor eta bateratzailea» behar dela berretsi du:

Hazkunde zentzudura: jakintzan eta berrikuntzan oinarritzea ekonomiaren garapena.

Hazkunde jasangarria: baliabideak eraginkortasun handiagoz darabiltzan ekonomia berdeagoa eta lehiakorragoa sustatzea.

Hazkunde bateratzailea: gizarteak eta lurraldeak bateratzen dituen enplegu-maila altuko ekonomia sustatzea.

Baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko xedez, **Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa**² ekimen enblematikoak argiro azaldu du baliabideen eta energiaren erabilerean uztartirik askatu behar dela hazkundera, etorkizunari begira hazkundera eta enplegua bermatzeko. Horretarako, oinarri zehatzak finkatu behar ditu «ekonomia berdeak»: produktu eta zerbitzu berriak garatu; berrikuntzan oinarriturik, lehengai gutxiago kontsumitu, eta hondakin gutxiago sortzeko proiektu berriak aurrera atera; ekonomia zirkulareranzko bidean ekoizpen-prozesuak eta logistika optimizatu, eta kontsumo-ereduetan aldaketak egin, kontratazio publikoa ere barne:

Baliabideak eraginkortasun handiagoz kontsumitzera eta EBko industriaren lehiakortasuna sustatzera bideratutako politikek egoki orekatuta egon behar dute, eta batera jorratu behar dituzte bai eskaintzaren alderdia bai eskaerarena; esate baterako, kontratazio publiko berdearen bidez eta kontsumitzaileei informazio hobea emanez.

1.2. EAEko JARDUERA-ESPARRUA

Herstura eta eraginkortasuna, Eusko Jaurlaritzaren politiketan

Europar Batasunak zabalduko ikuspegiaren ildotik, **EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriako Estrategia** garatu da, eta trena honek «[...] Baliabide gutxiago kontsumituz herria modu orekatuagoan ahalbideratu behar digu garatzeko [...]»³.

Ikuspegia: Euskal Metropoli moduan egituraturako herrialdea, kohesionatua, bakean bizi diren herritar aske eta osasuntsuek egina, gaur egungo ekoizpen sistema ekonomia berri, ekoeraginkor eta karbono gutxiko, lehiakor eta ireki, hezkuntzan, ikerketan, ezagutzan, berrikuntzan eta ekintzailetzan oinarritutakoa bihurtzeko konpromiso aktiboa hartzen duten herritarrek, biztanleen ongizate eta bizi-kalitateari eusteko asmoz; mundura irekitako herrialdea, baina kultur nortasunarekin, natur baliabideekin eta biodibertsitatearekin arduratsua, pertsonen talentua garatu eta leialtzeko aukera emango duen etorkizun erakargarria eraikitzeko, eta planetaren eta bertako herritarren garapenarekin konprometitua.

Ibilbide luze baten emaitza da hori guztia. Izan ere, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak 2002-2020 2002an bertan berehalako fruituak eman zituen, 2004. urterako Ekodiseinua bultzatzeko programa publikoa jarri baitzuen abian. Haren bidez, erabateko sostengua eman zion Eusko Jaurlaritzak produktuen diseinuan ingurumen-irizpideak barne hartzeko jarduketa-ildoari (2002an abian zen jada, **Ekodiseinu** Ikasgelen proiektuan).

Norabide berean eta enpresen eta erakundeen eraginkortasuna areagotzeko helburu berarekin, Eusko Jaurlaritzak Ekoscan araua garatu du lherberen bidez. Ingurumena EAEko ekonomiaren testuingurura egokituta kudeatzeko araua da Ekoscan, eta **industria ekoeraginkorra** lortzeko ekintza-planaren ardatza. Bestalde, eraikuntzaren sektorearen berezitasunak kontuan hartuta eta sektore horrek zenbat baliabide kontsumitzen dituen eta ingurumenean nolako eragina duen jakinik, «Eraikuntza jasangarriaren gida Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetarako» argitalpena kaleratu zen 2005ean.

Hiru eremu horiek elkarri lotu zaizkio arian-arian; hala, esate baterako, bete-beteko ikuspegi sektoriala eman zaio ekodiseinuari, hamar industria-sektoretako enpresei zuzendutako informazioa landuta. Eraikuntza da sektore horietako bat, eta hamaika kategoriaren katalogazioa egin da eraikuntzako material eta produktuetan. **Ekoeraginkortasuna**

¹ EUROPA 2020. Hazkunde zentzudun, iraunkor eta bateratzailea izateko estrategia COM(2010) 2020.

² Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa – Europa 2020 COM(2011) 21 azkena, estrategiari lotutako Ekimen enblematikoa.

³ Patxi López lehendakaria, Gasteizen, 2011ko uztailaren 5ean.

⁴ <http://www.ecoeuskadi2020.net/pdf/eu/EcoEuskadi-Estrategia.pdf>





Euskal Enpresan 2010-2014 Programan bat egin dute egitasmo horiek guztiek. Euskadiko enpresek berek adierazitako eskaerari erantzuna emateko ekimena da Ekoeraginkortasunaren programa, eta helburu zehatz bat du, gure enpresen lehiakortasuna sendotzea, Europako merkatu bakarrak dakartzan erronkei indarrez aurre egiteko, produktuei ezarritako ingurumen-eskakizunak gero eta zorrotzagoak baitira eta gero eta ekoizpen-teknologia garbiagoak exijitzen baitira.

EcoEuskadi 2020 ekimenak, bestalde, Europaren estrategiak bezala, ezinbesteko baliabideetat jotzen du erosketa eta kontratazio publiko berdea, ekonomia berde eta eraginkorra lortzeko eta garapen iraunkorra bermatzeko. Hala «Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea» da ekimenaren helburuetako bat, eta, helburu hori erdiesteko jarduera nagusien artean, honako hau proposatzen du:



73. Administrazioa eredu izan behar da, eta erosketak eta kontratazioak egiterakoan jasangarritasun irizpideak (sozialak, etikoak, ingurumenekoak eta berritzaileak) aintzat hartu behar ditu.

Bestalde, gaur egungo egoera ekonomikoak bultzatuta, aurrekontu-murrizketak ezarri dira administrazio publiko gehienetan, eta gastua arrazionalizatzeko eta muga estuen barruan mantentzeko politikak dira nagusi. Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak **Euskadiko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioen gobernu arduratsurako Gida 5** onartu zuen 2009an. Gida horretan aditzera ematen denez,

kontsumo arduratsua izan behar du Euskadiko enpresa publikoen bame-kudeaketako ardatzetako bat; era berean, gidan esaten denez, Euskadiko enpresek ezinbestekoa izango dute:



Eraginkortasunez eta arduraz kontsumitzeko konpromiso formal eta publikoa hartzea, eta, horretarako, ingurumenaren arloko ekintza-planak eratztea, energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak, birziklatze-jarduerak eta abar lantze aldera. Izan ere, hartara, enpresek, batetik, irabazi ekonomikoak izango dituzte, kostu-aurrezpenari esker, eta, gainera, baliabideak zentzuz erabiltzen dituztela bermatuko dute.

Bi erakunde publiko ari dira arduraz kontsumitzeko gidak eta eskuliburuak eratzeko lanetan: batetik, Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, 2006tik baitihardu erosketa berdearen irizpideak lantzen, eta, bestetik, EEE, Energiaren Euskal Erakundea.

Europar zein Euskadin, erosketa eta kontratazio publiko berdea oinarritzko baliabidea da ekonomia berdea sustatzeko eta baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzeko, baina, horrez gain, funtsezkoa da, orobat, aurrezpen ekonomikorako, hau da, gastu publikoan ere eraginkortasuna lortzeko.

⁵ http://www.openideiak.com/action/file/download?file_guid=14237



1.3. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN BETEKIZUNA

Azken hamarkadan errotik aldatu da kontratazio publikoak politika estrategikoetan eta politika sektorialetan duen eginkizuna.

Duela hamar bat urte (2000. urtetik 2003. urtera bitartean)...

Hauxe zen gakoa: Nola eta noraino ezar daitezke ingurumenaren arloko zehaztapenak kontratazio-agirietan?

Bi bidetatik eman zitaion argia galdera horri: Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren (EEJA) zenbait epairen bidez, batetik, eta kontratazio publiko berdeak ingurumena hobetzeko duen ahalmena azaltzeko European egindako ikerlan baten bidez, bestetik.

EEJAren epaiek, Helsinkiko autobusen kasuan eta elektrizitate berdearen erosketari buruzko Vienako kasuan⁶ bereziki, argi erakutsi zuten bazegoela ingurumen-irizpideak lizitazioen esleipen-irizpidetzat hartzeko aukera. Epaietan, gainera, irizpide horiek zehazteko modua ere adierazi zen, eta aditzera eman zen bazegoela ekoizpen-prozesuari lotutako ingurumen-irizpideak kontuan hartzeko aukera, horrek esleipen-eskumenari ezinbestean berehalako irabazi ekonomikorik eragin beharrik gabe ere.

Europako RELIEF⁷ proiektuak kuantitatiboki erakutsi zuen zenbateko ahalmena erosteta publikoak ingurumen-kalteak murrizteko eta European ingurumenaren ikuspegitik hobeak diren produktu eta zerbitzuen merkatua sustatzeko.

Hala, bada, legeen argitara eta ordurako garbi aintzatetsita nolako garrantzia duen erosketari publiko berdeak administrazioak ingurumenean duen eragin kaltegarria murrizteko eta, beraz, ingurumen-politikak egituratzeko, erosketari publiko berdea sustatzeari ekin zioten Europar Batasunean, herrialdeei erosketari berdearen aldeko konpromiso politiko imoak finkatzera bultzatuz.⁸

Duela bost urte (2003. urtetik 2008. urtera)...

Hauxe zen gakoa: Zer sektoretara zuzendu, sektore publikoaren kontsumoari lotutako ingurumen-eragin kaltegarriak ahal beste murrizteko eta merkatuak ikuspegi horretara erakartzeko?

Kontratazio publikoari buruzko 2004/17/EE eta 2004/18/EE zuzentarauen argitalpenak ematen duen lege-segurtasunari esker –zuzentaru horietan zehaztasun osoz jaso baitziren EEJAren ondorioak–, erosketari eta kontratazio publiko berdea gero eta imoago errotu zen ingurumen-politikan, batik bat teknologia garbiak, produktu eko-eraginkorrak eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorreko produktuak lantzen zituztenetan, baita, horiekin batera, berrikuntza-politikan ere.

Merkatu liderren ekimenak⁹ funtsezko erosletzat jo zuen sektore publiko sei merkatu liderretan, eta irtenbide berritzaile eta jasangarriagoak kontratatzerara bultzatu zuen.

Garapen hori sustatzeko, Europako Batzordeak EB osorako programa hasi zen zabaltzen, eta, haren barruan, produktu eta zerbitzuen multzo jakin batzuk lehenetsi zituen; era berean, kontrataziorako ingurumen-irizpideak landu zituen, prestakuntza-ikastaroak antolatu eta abar.



⁶ Case C-513/99, 2002, European Court of Justice eta Case C-448/01, 2003, European Court of Justice, hurrenez hurren.

⁷ Environmental relief potential of urban action on avoidance and detoxification of waste streams through green public procurement. ICLEI (2001-2003).

⁸ Hauxe izan zen horietatik lehena: Produktuen politika bateratua – Ingurumenari dagokion bizi-zikloaren konzeptuaren garapena, COM(2003) 302 amaiera.

⁹ Europako merkatu liderren aldeko ekimena COM (2007) 860 azkena.

«Kontratazio publiko berdea, ingurumen hobea xede»¹⁰ komunikazioan hezuramamitu zen hori guztia.

Euskadik ere bat egin du joera horrekin, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa lhoberen eskutik. Hala, IHOBEn arduren artean daude baliabideak garatzea, banan-banako laguntza-zerbitzuak ematea eta pixkanaka-pixkanaka EAEko administrazioetan erosketa eta kontratazio publiko berdea ezartzeko komunikazio- eta prestakuntza-ekintzak egitea, II. Ingurumen Esparru Programaren 2007-2010 konpromiso politikoari helduta.

Azken urteotan, gaur egun arte (2008. urtetik 2012. urtera):

Europar erosketa berdea sustatzeko prozesua garatzearekin batera, Europar Batasuneko kideak erosketa berdea bultzatzeko ekintza-planak ezartzen hasi dira (herrialdeen % 80k, gaur egun), gobernuak erosketa berdearen alde hartuko konpromisoa betetze aldera.

Grafikoa. Erosketa berdeko planak dituzten Europar Batasuneko estatuak



Hauek dira 2011ra arte erosketa berdeko plana edo antzeko planen bat ezarria zuten herrialdeak:

Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, España, Finlandia, Frantzia, Italia, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgua, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika eta Suedia.

Beste herrialde hauek, berriz, halako plan bat eratzeko fasean zeuden 2011n:

Bulgaria, Estonia, Grezia, Hungaria eta Errumania.

Horrez gain, EKPB neurtzeko metodologiak hasi dira abian jartzen, argiro jakiteko orain arte planak zenbateraino barneratu diren eta ingurumenean zer hobekuntza lortu duten.

Euskadiri dagokionez, aldi horretan zenbait neurketa-metodo eratu, eta **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2011-2014 Programa** onartu da, Eusko Jaurlaritzaren sail eta sozietate publikoek gai horretan izan beharreko jardunbidea finkatzeko, asmo handiko helburu bat lortze aldera: hain zuzen ere, lehentasuneko produktuen multzo jakin bateko erosketen eta kontratazioen % 100ek 2014. urterako ingurumen-irizpideak barneratua izatea. Programa hori, beraz, **EcoEuskadi 2020** Garapen Jasangarriako Estrategiari lotzen zaio, eta EKPBaren arloan hartutako konpromisoa betetzeko oinarri gisa balio du.

Azken urteotan, jauzi kualitatiboa egin du erosketa berdeak, eta funtsezko tresna bilakatu da Europako lehiakortasuna eta garapena bultzatzeko, –halaxe dago jasota arestian aipatutako **Europaren 2020 Estrategian** eta hari uztarturiko ekimen estrategikoetan–.

Orain arte aipatutakoaz gain, **Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa** izeneko ekimenak honako helburu hauek hartu ditu ardatz: ingurumenean eragin kaltegarri nabarmenak dituzten produktuak erosketa eta kontratazio publiko berdearen (EKPB) eskakizunak zorrotzea; erosketa eta kontratazio publiko berdea Europar Batasunak finantzatutako proiektuekin nola lotu ebaluatzea, eta, erosketa eta EKPB sustatzeko, Kontratazio publiko bateratua bultzatzea eta kontratazio publikoaren arduradunen sareak garatzea.

Horri lotuta, **Berrikuntzaren aldeko Batasuna** ekimenak proposamen zehatz bat egin du, Europar Batasuneko kideek eta eskualdeek aurrekontuen zati bat gorde dezaten bai merkatuarate aurreko kontratazio publikorako bai produktu eta zerbitzu berritzaileen kontratazio publikorako. Ekimen horren bidez, produktu eta zerbitzu berritzaileen kontratazio publikoko merkatuetara 10.000 milioi euro bideratu nahi dira, zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko eta gizartearen erronka handiei erantzuna emateko, kontratazio berritzaileari dagokionez AEBko merkatuen parera iristea helburu hartuta.

Horrenbestez, hauxe da gaur egun gakoa: Nola erabil daiteke kontratazio publiko berdea, Europako ekonomia lehiakorrago izateko?

Gaur egun, ingurumen-irizpideak bane hartzen dituen erosketa eta kontratazio publikoak dagoeneko ez dago ezbaian, 2000. hamarkadako hasierako urteetan gertatu zen bezala, eta funtsezko tresna bilakatu da Europar Batasunaren lehiakortasun ekonomikoa eta garapen iraunkorra bermatzeko.

¹⁰ Kontratazio publiko berdea, ingurumen hobea xede, COM (2008) 400 azkena.



2. ESTRATEGIAK

Zer estrategia ezar daitezke baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko?

EKPB garapen jasangarriago bat bermatzeko ezinbesteko baliabidea dela aitortu arren, bada ekimen hori ezartzeko oztopo bat –are handiagoa krisi garaiotan–: ingurumenerako hobeak diren produktuak eta zerbitzuak garestiagoak direlako aurreiritzia, hain zuzen.

Alabaina, uste hori okerra da maiz, hainbatetan frogatu baita prezioetan egoten den alde hori ez dela huts-hutsean produktuen edo zerbitzuen ingurumen-ezaugarrien araberakoa, beste inguruabar batzuk ere izaten baitira tartean.

Adibide bat, argigarri

Erosketa eta kontratazio berdea ez da beti garestiagoa

Ihoberen ohiko hornikuntzen eta kontratuen emaitzak

Ihobek Euskadin erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko konpromiso irmoa du hartua, jardunbide horrek abantailak baititu: 1) ekonomia berdea sustatzeko 2) ingurumenari eragiten zaion kaltea leuntzeko eta pertsonen osasuna zaintzeko (guztiak bane: fabrikatzaileak, lizitatzailak eta administrazio kontratatzailea bera).

Ihobek, 2005etik, erosketa berdea sustatzen dihardu EAEko administrazioaren maila guztietan, Eusko Jaurlaritzatik hasi eta Euskadiko udalerririk txikienetaraino, betiere bere buruarengandik hasita, ez baitago eginetan agertzea baino jardunbide hoberik.

Luze eta zabal hedatuta dago ingurumenerako hobeak diren produktuak eta zerbitzuak garestiagoak direlako ustea; horixe da, hain zuzen, erosketa berdearen gaineko aurreiritzi nagusietako bat.

Horregatik, uste hori egiazkoa ote den jakiteko, Ihobek bere ohiko hornikuntzen eta zerbitzuen kontratuak aztertu ditu: papera, paperezko produktuak, bulegoko materiala, inprentako eta kopia-dendetako zerbitzuak (informatika-zerbitzuak kanpoan utzi ditu, arlo horretan hornitzaileak daudelako homologatuta eta ez produktuak).

Ihoberen eredia, gainera, tokiko beste administrazio askoren parekotzat jo liteke, langile gutxi baititu (hirurogeita hamarren bat langile) eta erosketa-bolumen txikia.

Azterketa 2008an eta 2011n egin da, eta hauek izan dira emaitzak:

2008an...

- Azterketak erakutsi duenez, derrigorrezko irizpide guztiak eta baloratu zitezkeen ingurumen-irizpide guztiak betetzen zituzten eskaintzak eskaintzarik garestienak baino % 10-30 merkeagoak ziren.
- Areago, gutxieneko ingurumen-zehaztapenak ere betetzen ez zituzten ohiko produktuen eskaintzak ingurumenari begira hobeak ziren eskaintzak baino garestiagoak ere baziren kasu batzuetan.
- Horrenbestez, erosketa berdearen alde eginda ekonomikoki ere aurreratu egin du Ihobek, askotan kontrakoa uste izaten den arren.

2011n...

- 2008an erabilitako agiri berberak erabilia, ikusi da aurreko urte horrekin alderatuta prezioek sendo egin dutela behera (% 19 batez beste), nahiz eta jasotako eskaintza guzti-guztiak, ingurumenari dagokionez, hobeak izan diren.
- Bestalde, prezio-alde nabarmena hauteman da antzeko ingurumen-eskakizunak betetzen dituzten enpresen artean; hala, bada, horrek adieraziko ei luke enpresa hornitzaileen ezaugarriek (erosketa-bideak, irabazi-marjina, merkataritza-estrategia eta abar) produktuen ingurumen-kalitateak baino eragin handiagoa dutela eskaintzak egiteko orduan.

Ihoberen 2008 eta 2011ko lizitazioetako baldintza-agirietan eta esleipenetan oinarrituta landutako datuak.



Beste batzuetan, zerbitzua betetzeko baldintza zehatzek dute eraginik handiena kontratazioaren benetako kostuetan; halakoetan, bada, aukera berdeak dira aukerarik ekonomikonak.

Adibide bat, argigarri

Produktu berdeak (agregakin birziklatuak) erabilia, lortutako aurrezpen ekonomikoak, Newporteko errepideak egiteko lanetan

Ingurumenerako hobeak diren produktuak garestiagoak direla uste ohi den arren, Erresuma Batuko administrazioak diru asko aurrezteko lortu zuen, agregakin birziklatuak eta galdatze-zepak erabilia Newporten errepide-banatzaila bat egiteko lanetan.

Labe garaiak gertu daudenez (material birziklatuaren hornitzailea) eta Newporteko harrobiak, ordea, urruti samar, obra-guneko bertako indusketetan lortutako agregakinak ahalik eta gehien erabiltzea erabaki zen.

Hala, material birziklatua erabilia eta sortutako agregakinak zabortegira botatzeko kanonak ordaintzeko gastua txikiagoa izanda (obran bertan berrerabili ziren agregakinak, eta beraz hondakin gutxiago sortu zen), administrazioak:

- *proiektuaren kostuaren % 4 inguru aurreztu zuen; bestela esan, 2,1 milioi libera (2,5 milioi euro) aurreztu zituen, proiektuaren kostu osoa kontuan hartuta.*
- *obrako bertako agregakinak erabiltzeagatik soilik, materialean 252.500 libera aurrezteko lortu zuen, eta 940.000 libera inguru, hondakinak zabortegira botatzeko zerga saihestegatik (1,4 milioi euro guztira).*

Iturria: SQW (2006) Cost Benefit Analysis of Sustainable Public Procurement. **DEFRA:** London.

Horrenbestez, kasuz kasu aztertu behar da ingurumenerako produktu edo aukera onena benetan garestiena den edo ez, beste aldagai askoren arabera izan baitaiteke azken prezioa: hornitzailea zein den, obraren ezaugarri zehatzak zein diren, zer zerbitzu edo produktu kontratatatu behar den eta abar.

Gainera, aukera «berdeen» erosketa-prezioa garestiagoa izateak ez du esan nahi aukera, produktu edo zerbitzu hori benetan garestiagoa denik. Epe laburreko ikuskera zatikatuaren ondorioa besterik ez da uste hori.

- Epe laburreko ikuskera da, erosketa-kostuei baino ez zaielako erreparatzen, alde batera utzita dena delako ondasun, obra edo zerbitzuak bere bizi-ziklo osoan guztira eragingo dituen kostuak.
- Ikuskera zatikatua da, bestalde, ez baitu kontuan hartzen erosketa- eta kontratazio-aukera horrek nolako eragina izan dezakeen beste sail edo erakunde batzuetan, garraio-kostuak direla (erabilera, ustiaketa eta hondakinen kudeaketa) edota unean-unean ingurumena babesteko neurririk ez hartzeak etorkizunean eragin ditzakeen kostuak direla.

«Erosketa eta kontratazio publiko berdean», aldiz, ikuspegi orokorretik aztertzen dira kontratazio-aukerak, bizi-ziklo osoa kontuan hartuta; hala, ikuspegi horrek, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako beste zenbait mekanismorekin bat eginda, ingurumena begirune handiagoz babesten duten irtenbideak topatzen laguntzen du, irtenbide horiek betiere eskualdearen garapena sustatzen dutela eta gastu publikoa eraginkortasun ekonomikoaz kudeatzen dutela bermatuta.

Hori guztia lortzeko bideak ugari dira, eta, maiz, bateragarriak ere bai:

1. Beharizanen aurrean, irtenbideak behin baino gehiagotan pentsatzea, erosketak zentzuz egiteko.
2. Bizi-ziklo osoan dituzten inpaktuak eta kostuak kontuan hartzea.
3. Kontratazioaren bidez ekoberrikuntza sustatzea.
4. Tokian tokiko edo eskualdeko ekonomiaren eta ingurumenaren garapena sustatzea.
5. Erosketa bateratuen bidez eraginkortasuna bermatzea.
6. Baliabide pribatuak onura publikoaren mesedetan bideratzea.

Jarraian, alderdi horietako bakoitzaren nondik-norakoak azaldu, eta zenbait adibide emango dira, EAEko etorkizuneko jarduketetarako argigarri modura.



1. estrategia

Beharizarak behin baino gehiagotan pentsatzea, erosketak zentzuz egiteko

Erosketa- edo kontratazio-prozesuen bidez, erakundeak beren eginkizunak betetzeko sortzen zaizkien premiak asetzen saiatzen dira.

Beharizatan horiek nola betetzen diren, horixe da ingurumen-onura eta eraginkortasun handiago lortzeko gakoa. Halaxe adierazi zuen Europako Batzordeak berak 2001eko komunikazio interpretatiboan:



Erosketa publikoaren prozesuko hasierako urratsetan daude «Erosketa berdearen» aukera nagusiak, alegia, kontratu-gaiari buruzko erabakia hartzen den unean.¹¹

Hala ere, askotan alde batera uzten da benetako premiei buruzko gogoeta edo ez da behar bezala jorratzen, nahiz eta gogoeta hori giltzarria den aukerarik egokiena hautatzeko, alderdi guztiak aintzat hartuta, hots, ingurumena, berrikuntza eta administrazioarekiko zein pertsona onuradun/erabiltzeekiko eraginkortasuna.

Horretarako, oso ondo bereizi behar dugu zer den «normalean nahiago izaten duguna edo erosten duguna» eta zer den «benetan behar duguna»:

Esate baterako, izatez, ez dugu fax-makinarik behar, baizik eta faxak bidali eta jaso ahal izatea. Gaur egun, nahikoa da fax-makina bakarrik edukitzea edo, bestela, gaitasun hori duen funtzio askoko ekipo bat edo faxak ordenagailutik zuzenean bidali eta jaso ahal izateko programa bat (softwarea), gaur egun ordenagailuak baitira administrazioko lan-tresna nagusiak eta sarera eta Internetera konektatuta egoten baitira.

Aukerarik garestiena ekipoa bera edukitzea izaten da, eta, gainera, aukera horrek eragin ohi dio ingurumenari kalterik handiena, ekipoa fabrikatzeko prozesua dela, ekipoaren beraren energia kontsumoa dela edo paper- eta toner-kontsumoa dela. Softwareak, berriz, kalte txikiagoa eragiten dio ingurumenari, eta kostu ekonomikoa ere txikiagoa du.

Horrenbestez, beharizatan bera asetzeko aukerak bat baino gehiago izaten dira, eta beharizatan hori nola bideratzea erabakitzen den, modu bateko edo beste eragina izango du erabaki horrek baliabide naturaletan zein gastu ekonomikoan. Horregatik, xehe aztertzea da zergatik nahiago izaten diren hala ere eragin bortitzagoa duten aukerak; aztertzea da, halaber, zer neurri hartu behar diren joera hori aldatzeko.

Erosketa eta kontratazio berdeko estrategiek, beraz, bi alderdi hartu behar dituzten kontuan, lizitazioak prestatzeko orduan:

- Zer behar dugun benetan
- Eta beharizatan hori erosketa txikiagoa eginez bideratzeko modurik ote dagoen (batik bat balio erantsirik gehitzen ez duten arlo horietan).

Baliteke gogoeta horren ondorioz erabakitzea erosketa bera edo haren zati bat **egin beharrik ez dagoela, edo murriztu edo doitu** egingo dela. Hersturaren ikuspegitik so eginez gero, murrizketatzat jo daitezke erabaki horiek; ingurumenaren ikuspegitik, ordea, kudeaketa hobetzeko eta alferreko gastu eta eraginak ezabatzeko erabakia dira. Ondasun eta ekipamenduz hornitzeko kontratuetan, esaterako, behar baino unitate gehiago ez hartzen saia daiteke.

Adibide bat, argigarri

Bizkaiko Foru Aldundiak inprimaketarako ekipoei dagozkien kontratuak zentzuz doitzeko hartutako erabakia

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontratazio Saila zenbait produktu eta zerbitzu Aldundi osorako erostean arduratzen da, eta fotokopiagailuak dira produktu horietako bat.

Beste sail batzuek eskatutako ekipamenduak erostean arduratzeaz gain, ekipamenduei ahalik eta etekin handiena ateratzen ere saiatzen da, eta sail bakoitzaren benetako beharizatan arabera doitzen ditu erosketak.

Horretarako, Kontratazio Saileko teknikariek bilera egiten dute urtero Aldundiko hamar sailtako arduradunekin:

- ekipamenduen ezaugarriak (inprimatze-abiadura batik bat) sail bakoitzaren benetako beharizantara ahal beste doitzeko zer egin behar duten adierazteko, eta
- makinek eskaintzen dituzten aukera gehienak erabil ditzaten bultzatzeko: sareko inprimagailua eta eskanerra, alde bietako inprimaketa eta kopia eta abar.

Eskaera jakin bat jasotzen dutenean, zenbait parametro eskatzen dituzte (hala nola aldatu beharreko makinak zenbat kopia egiten dituen hilabetean), eta aukerarik onena zein izango

¹¹ Europako Batzordeak egindako komunikazio interpretatiboa, Europar Erkidegoaren kontratu publikoaren gaineko legediari eta kontratazio publikoan ingurumen-alderdiak barne hartzeko aukerari buruzkoa, COM(2001) 274 azkena.



litzatekeen adierazten dute, kontuan hartuta ordura arte makina nola erabili den, sail edo arlo horretan zenbat langile dauden eta zer jarduera betetzen dituen.

Gainera, 2009an azterlan bat egin zen (galdetegi baten bidez), zehazki jakiteko sail bakoitzean zenbat ekipamendu zeuden, ekipamendu horietako bakoitza zenbat pertsonak erabiltzen zuten, urtean zenbat kopia egiten zituen eta makinak non zeuden kokatuta, baliabideak hobetzeko proposamenak garatze aldera.

Hartara, ekipamendu-kopurua gutxitzea lortu da, benetako inprimatze-beharrizanetara doituta. Gainera, sail bakoitzean ekipoek izan beharreko abiadura kontuan hartuta, energia gutxiago kontsumitzen duten ekipamenduak erosi ahal izan dira. Bestalde, ekipamenduak kontratatzeke ordutan ingurumen-irizpideak ere aintzat hartu zituen Kontratazio Sailak, eta, hartara, are gehiago hobetu zuen ekipoen energia-eraginkortasuna, baita beste ingurumen-ezaugarri batzuk ere, aurreko ekitaldiekin alderatuta kostuan igoerarik eragin gabe.

Iturria: 2. jardunbide egokia. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua. Euskadiko administrazio publikotik bere erazpenerako eredu eta adibideak. IHOBE, Bilbo.

Produktuak berrerabiltzea, trukatzeko edo konpontzea da beharrizanak berrantolatzeke beste modu bat. Erabilgarri dauden baliabideen kudeaketa bizi eta dinamikoa egin behar da horretarako. Hala, bame-prozedura zehatz batzuk ezarri behar dira, baliabide horien «ustiaketa-egoera» zein den zehatz-mehatz jakiteko eta baliabideak erabiltzen jarraitzeko zer aukera dauden ezagutzeko. Hori, gainera, baliagarria izango da, etorkizunean zer beharrizan egongo diren jakiteko eta iraupen- eta konponketa-irizpideak finkatzeko, baliabideak ahal beste ustiatze aldera.

Adibide bat, argigarri

Tokiko administrazioen artean trukea eta berrerabilera sustatzeko UDALTRUKE plataforma

2012. urtearen erdialdean, Enkarterrietako eskualdearen landa-garapenerako Enkarterrialde elkarteak Udaltruke plataforma jarri du abian, elkarteko kide diren 15 udaletako baliabideak

hobeto erabiltzeko iraunkortasuna eta arrazionalizazio ekonomikoa sustatzea helburu.

Plataforma horri esker, udalek beren ondasunak eta materialak trukea ditzakete elkarrekin doan, zeinahi arazoirengatik ondasun edo material horiek erabiltzeari utzi diotelako, soberan ditzutelako edo behar baino gutxiago erabiltzen ditzutelako.

Udaltrukeren bidez, beraz, beste aukera bat ematen zaie ondasun eta material horiei, hondakin bihurtu beharrean edo erabili gabe eduki beharrean; hartara, dirua aurrezten dute udalek, eta, gainera, ingurumen-eragin kaltegarriak leuntzea lortzen dute (produktuak fabrikatzeak ingurumenari eragindako kalteak eta oraindik erabilgarri diren produktuak hondakintzat tratatzeak dakartzan kalteak leuntzen dira zehazki).

Katalogo elektronikoa bat da Udaltruke, eta hartan jasotzen dira administrazioek erabiltzen ez dituzten produktuak (une honetan udaletan sarri-sarri erabili ohi diren 200 produktu baino gehiago daude katalogoan); erakundeek, hala, behar duten produktu hori bila dezakete katalogoan, eta maileguan eskatu. Arlo ugari hartzen ditu katalogoak bame: lorezaintza (motoPONPAK eta heskaiak mozteko makinak), zulgailuekin egin beharreko lanak, errepedeetako seinaleak eta hesiak, kultura-ekitaldietarako osagaiak (musika-kioskoak eta aulki eta mahai tolesgarriak) eta haur-jolasetarako azpiegiturak, besteak beste.

Plataforman trukea egiteko, erakunde bakoitzak «kreditu» zehatz bat du, plataformarako sortutako alegiazko UKE monetan oinarritua (euroren parekoa). Udal batek sistemara produktu bat gehitzen duen aldiro, udal horren UKE kreditua handitu egiten da, artikulu horri ezarri zaion «prezioaren» adinako kopuruan; produktu bat «erosten» edo eskatzen duenean, berriz, produktu horri ezarri zaion prezioa «ordaindu» behar du, hura eskuratu ahal izateko. Sistema horrek, beraz, trukea sustatzen du, eta, gainera, plataformari esker lortutako aurrezpena zerbatesteko aukera ere ematen du.

Berrerabilpen-ekimen horren bidez, trukeen merkatuaren jardunbidea bameratu da administrazioan indar berriz, administrazio barruan kontsumo jasangarria sustatzeko konpromisoa betetzeko xedeari erantzunez.

Iturria: Albistea. Udaltruke jaio da. <http://www.karrantza.org/eu-ES/Albistek/Orrialdeak/NaceUdaltruke.aspx> (2012ko urriaren 20an ikusia).

Informazio gehiago nahi izanez gero: http://www.premioconama.org/premios12/premios/proyectos_popup.php?id=96



Produktuak kontratatu beharrean zerbitzuak kontratatzea

–leasinga, rentinga eta horien gisako ereduak baliatuta– baliagarria izan daiteke kostuak murrizteko eta zenbait erosketaren ingurumen-eraginak leuntzeko –halakoetan, dena den, kontuz jardun behar da ingurumen-kaltea beste eragile batzuetara igaro ez dadin–.

Erosketa eta kontratazioa arrazionalizatzeko, ordura arte erabilitakoak besteko **aukera eraginkorragoren** bat har daiteke. Zerbitzuetarako ere balio du horrek, zenbait aldagaiari –hala nola maiztasunari edo intentsitateari– behar baino indar handiagoa ez emateko; izan ere, erosoagoa gerta daiteke hori, baina ez da inondik ere eraginkorra.

Adibide bat, argigarri

Växjö-n (Suedia) ondasunen banaketa zentzuz antolatzeke programa

Växjöko udalak (60.900 biztanle gutxi gorabehera) eskaerak banatzeko eta entregatzeko zituen zerbitzuak aztertzea erabaki zuen 2009an. Horretarako, lehenik eta behin, udaleko sail guztiak zehaztasun osoz erregistratu behar izan zituzten jasotako hornigai guztiak (data, edukia, pisua eta abar). Hala, emaitzek aditzera eman zuten, udaleko 360 sailek 1.900 hornigai inguru jasotzen zituzten astean, 73 banaketa-enpresaren eskutik.

Emaitza horietan oinarrituta, udalak bere beharriaz buruzko gogoeta egin zuen, eta sistema hobetzea erabaki zuen; horretarako, eskaeren eta entregaren prozesua aldatu, eta enpresa bakar baten ardurapean utzi zuen hornitzaileei erositako ondasun guztien banaketa. Zerbitzuaren lizitazio-agirietan ingurumen-eragin kaltegarriak murrizteko irizpide zorrotzak jaso zituen.

Gaur egungo sisteman, «hornigaiak entregatzeko ibilbide finkoak daude; hornitzaileek, bestalde, hornigaiak udalari zuzenean entregatu beharrean, kontratatutako banaketa-enpresaren bidez entregatzen dituzte; eskaera udaleko informatika-sistemaren bidez egiten zaienean hornitzaileei, banaketa-enpresa horrek eskaera horren jakinarazpena jasotzen du, entregak antolatu ahal izateko, eta astean behin egiten da banaketa (lehen egunero egiten zen), elikagaien kasuan izan ezik, halakoetan sarriago egiten baita banaketa. Gainera, informatika-sistemari esker, erazagoa gertatzen da ingurumenerako hobeak diren produktuak hautatzea.

Horrenbestez:

- *Entregak gutxituta (% 50, esaterako, bulego-materialean) eta garrarioa eraginkorragoa bilakatuta, nabarmen murriztu dira banaketaren ingurumen-eragin kaltegarriak.*
- *Gainera, produktuaren kostua (banaketa bidez jasotakoena zein bestelakoena) eta banaketa-enpresaren kostua kontuan hartuta, Udalaren aurreikuspenen arabera, orain arte baino merkeagoa izango da hornigaiak erosteko eta banatzeko prozesua.*

Horrenbestez, Udalak ondasunak eskuratzeko eskaera- eta entrega-sistema aztertuta, hornikuntza-premiak ingurumenaren zein ekonomiaren ikuspuntutik modu jasangarriagoan bideratzeko modua lortu da.

Iturria: ECOPOL Project (2010). Best practice examples: green public procurement.

Erosketa berdearen ikuspegitik benetan zer beharizan ditugun eta eskuratutako produktuek eta zerbitzuek zer kalte eragiten dituzten zehaztuta, ingurumena babesteko eta eraginkortasuna handitzeko bideak topa ditzakegu, murrizketetan oinarritu beharrean erosketak eta eskura dauden baliabideak hobeto kudeatuz.

2. estrategia

Bizi-ziklo osoko eraginak eta kostuak kontuan hartzea

Kapituluaeren hasieran aipatu den moduan, produktuek eta zerbitzuek eragin eta kostu ekonomikoak dituzte beren bizi-ziklo osoan (asmatzen eta fabrikatzen direnetik hasi, eta erabiltzen edo ustiatzen diren denbora osoan barrena, harik eta bizitza erabilgarriaren amaieran haien azkena kudeatzen den arte).

Bereziki nabarmena da hori energia-kontsumoari lotutako produktu, obra eta zerbitzuetan: eraikinetan, argiztapenean (barrukoa zein kalekoa), lan-ekipamenduetan (ordenagailuak, inprimagailuak eta abar) eta ibilgailuetan, besteak beste.

Erosketaren edo kontratazioaren bidez, etorkizuneko eraginak ari gara aurretiaz zehazten, garrantzi handiko ondorio ekonomikoak izan baititzakete. Horregatik, funtsezkoa da lizitazioetan ingurumen-irizpideak kontuan hartzea, irizpide horien bidez, produktuaren eta zerbitzuen erabilera-aldiko kontsumoa murriztu dadin eta haien erabilera-bizitza osoan aurrezteko modua eman dezaten.



Kontratuen legeriak berak ezartzen du bidezkoa dela balioespen-irizpide bat baino gehiago jartzea, honako kasu hauetan bereiziki:



Ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen kontratuetan; kontratu horiek esleitzerakoan ingurumen-baldintza neurgarriak baloratuko dira: esaterako, ingurumenean eragin txikiagoa izatea; ura, energia eta materialak aurrezte eta neurrian erabiltzea; bizi-zikloak ingurumenean duen kostua [...].¹²



Adibide bat, argigarri

Suediako egitasmoa, eraginkortasun ekonomikoa eta eragin negatiboen murrizketa lortzeko, ingurumenerako hobeak diren ordenagailuak erosiz

Suediako Gobernu Zentralak modu zentralizatuan egiten ditu lizitazioak, esparru-akordioen bidez, Gobernuaren agentziek eta sailek bolumen handian erosten dituzten produktu eta zerbitzuetan. Ordenagailu pertsonalak erosteko lizitazioa da horietako bat.

Suediako zenbait ingurumen-politika betetzeko xedez, informatika-ekipamenduak kontratatuzko orduan, ingurumen-irizpide zorrotzak ezarri ditu Gobernuak, bai energia-eraginkortasunari dagokionez bai ekipamenduek dituzten produktu kimiko arriskutsuei dagokienez.

Esparru-akordioan jasotako ingurumen zehaztapenei esker, Gobernuko agentziek:

- 3.750 MWh murriztu dute urteko energia-kontsumoa.
- 26ren bat tona piro-atzeratzaile kloratu eta bromatu gutxiago isurtzea lortu dute.
- Gainera, esparru-kontratua sinatu duten agentzietako erosketa-arduradunek

homologatutako produktu guztietatik eraginkorrenak erosten badituzte, 16.100 MWh aurreztu daitezke urtean.

Horrenbestez, urtean ia 290.000 euro aurrezten dira, eta, gainera, beste 1,2 milioi euro pasatxo aurrezteko aukera dago, ekipamendu homologatu eraginkorrenak erosiz gero.

Iturria: Swedish Environmental Protection Agency (2009) Green public procurement in Sweden. Naturvårdsverket: Stockholm. Kostuen kalkulua Ecoinstituten egin du, Suedian elektrizitateak duen prezioa oinarritat hartuta [0,077 euro, 20 GWh/urte (% ±50)] kontsumitzen duen industria-kontsumitzailearen tarifa; erreferentzia: 2011ko azaroa <http://www.energy.eu> [2012ko apirilaren 20an ikusia].

Administrazioak, beraz, bi alderdiak hartu behar ditu kontuan, hots, produktua edo zerbitzua erosteko unetik bertatik hasi eta erabilera-aldian barrena ingurumenari eragingo zaizkion kalteak, batetik, eta errendimendu orokorra hobetuko duten irtenbideak ebaluatzeak sortuko dituen kostuak, bestetik.

Adibide bat, argigarri

Ibilgailu-premien azterketa eta ibilgailuen erosketa berdea, Kataluniako Gobernuaren «Mossos d'esquadra» polizia-zerbitzuan

Kataluniako polizia-zerbitzurako 1.000 ibilgailu baino gehiago errentan hartzeko lizitazioa egin behar zela ikusita, 2009an Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak eta Barne Saileko Erosketa eta Logistika Sailak lizitazioaren hasieratik erosketa berdean oinarritutako irizpideak ezartzea erabaki zuten. Hala, benetako beharrianak antolatzeari eta aztertzeari ekin zioten lehenik. Erosketak zentzuz egitea eta ingurumenean ahalik eta kalte leunenara eragitea zen helburua, betiere administrazioari kostu txikiagoa eragingo ziola bermaturik.

Erosketa Saila, bada, kontratuaren unitate onuradun guztiekin eta automobil-flotaren kudeatzaileekin jarri zen harremanetan, zehazki zer beharrian zuten jakiteko (alegia, zer automobil-mota behar zuten eta zerbitzu bakoitzean automobilek duten erabilerearen eta zerbitzuaren ezaugarrien arabera zer prestazio

¹² 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duena. 150. artikulua.



eduki behar zituzten jakiteko), informazio horretan oinarrituta, eskakizunak benetako beharriaren arabera zehaztu eta doitu ahal izateko. Ohartu ziren kasu batean baino gehiagotan ibilgailuen potentzia eta zilindro-bolumena behar zena baino handiagoa zela; horrek esan nahi zuen, beraz, ordura arte behar baino kontsumo eta CO₂-isuri handiagoko ibilgailuak hartu izan zirela errentan.

Bestalde, zerbitzuaren bizi-zikloaren kostuen azterketa eguneratua ere egin zen, atal hauek berezita: ibilgailuen kostuak, eraldaketa, mantentze-lana, aseguruak, finantza-kostuak, erregai-kontsumoa eta hondar-balioa.

Informazio horrekin eta lizitazio-agiria hobeto prestatzeko xedez, aurreko agirien emaitzak ere aztertu ziren (ingurumen-irizpideak, produktu-sorten egitura, lehiarako hesiak, teknologia- eta prezio-gorabeherak, hornitzaileen oharrak eta abar).

Azkenik, lizitazio-agiriaren zirriborroa prestatu zen Erosketa Sailean, automobil-flotaren kudeatzaileek, erabiltzaileek eta unitateetako adituek azter zezaten. Ingurumen-irizpideak, berriz, Ingurumen Sailak eta Energiaren Kataluniako Institutuak (ICAEN) aztertu zituzten. Gainera, enpresa hornitzaileak ere haztatu zituzten, bai ordura artekoak, bai interesdunak eta aukeran ziren beste batzuk ere.

Hala, beharriaren aztertua, lizitazioa denboraz prestatuta eta funtsezko eragile guztien partaidetza sustatuta, hauxe izan da emaitza:

- Kontratuaren kostua irteera-prezioarekiko % 19 murriztu da (43 milioi eurotik 35 milioi eurora).
- Matxuren aurrean erantzuteko denbora laburtu egin da; hala, 24 ordutik eta 96 ordura bitartekoa izatetik 24 ordukoa izatera igaro da matxura-mota guztietan. Hortaz, zerbitzua eta eraginkortasuna ere hobetu dira.
- Erregai-kontsumoa 1 milioi litrotan murriztu dela zenbatetsi da, alegia, ordura arte erabilitako eta lizitazioaren bidez ordeztutako ibilgailuena baino % 12 txikiagoa izan da kontsumoa.
- CO₂-isuria 3.046 tonatan murriztu dela zenbatetsi da, hots, % 14 murriztu da aurreko ibilgailuen CO₂-isuria. Emaitza horietan besteak beste, 120 g CO₂/km-tik beherako CO₂-isuria duten 300 hiri-ibilgailu baino gehiago erositak.

Erosketa berdearen ekimenaren bidez, Barne Sailak:

- Polizia-zerbitzuaren eraginkortasun-beharriaren bete dituzten, poliziaren eginkizun bakoitzera hobeto egokitutako prestazioak dituzten ibilgailuak eskuratuta.
- Ibilgailu-flotaren kudeaketa hobetu du, eta ibilgailuen eraginkortasuna handitu.
- Lehia sustatu du.
- Ingurumenean eragin txikiagoa duten ibilgailuak kontratatu ditu. Ibilgailu horiek, gainera, gastu publikoa ere murriztu dute erabilera-aldian, eta lizitazioan bertan lortutako aurrezpenari gehitu behar zaio gastu-murrizketa hori.

Kasu horrek argi eta garbi erakusten du zeinen garrantzitsu eta eraginkorra den lizitazioak aurretiaz ondo prestatzea eta beharriaren ondo azterzea; hartara, eraginkortasunez bete baitaitezke administrazioaren eskakizunak, topatutako irtenbideek ingurumenerako eragin negatiboak murrizteaz gain aurrezpen ekonomikoari ere bide ematen baitiote, epe laburrean gainera.

Iturria: Ecoinstitut-ek landua, Kataluniako Generalitateko Barne Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak emandako datuetatik abiatuta.



Bizi-zikloaren kostuen kalkulua:



Denbora jakin batean izandako kostuen alderaketan oinarritutako ebaluazioa egiteko teknika da, eta egoki diren faktore ekonomiko guztiak hartzen ditu kontuan: hala hasierako diru-kostuak nola etorkizuneko jarduneko kostuak.¹³

Horrenbestez, produktuaren eskuratze-kostua kontuan izateaz gain, kontuan hartzen ditu orobat:

- erabilera- edo jardun-aldian sortutako gastu arruntak (uraren, energiaren eta gai suntsikorren kontsumoak)
- mantentze-kostuak
- hondakin gisa kudeatzeko kostuak, haren erabilera-bizitza amaitutakoan.

Bizi-zikloaren kostuen kalkulua lizitazio-prozesuaren momentu batean baino gehiagotan da erabilgarria: 1) aurretiko fasean, zer aukera dauden aztertzeko eta zehaztaperen teknikoak lantzeko, 2) esleipen-prozesuan bertan, eskaintzak balioesteko sistemaren barruan 3) kontratazioa egindakoan, hartutako neurriei dagozkien kostuak eta eraginak aintzat hartzeko.

Zeregin hori bideratzen laguntze aldera, Europako Batzordeak tresna horiek garatzeko azterlanak eta proiektuak sustatu ditu; hala, arian-arian tresna horiek erosketa eta kontratazio publiko berdearen politiken materialei ari zaizkie gehitzen.

Adibide bat, argigarri

Bizi-zikloari dagozkion kostuak (eta hari lotutako CO₂-isuriak) kalkulatzeko tresnak, SMART-SPP proiektuaren erosketan eta kontratazio publikoan

Europar Batasunak «SMART SPP – Kontratazio publikoaren bidezko berrikuntza» proiektua garatu zuen 2009. urtetik eta 2011. urtera. Europako merkatuan karbono isuri txikiko teknologia berriak sustatzea zen proiektuaren helburua, eta kontratazioa egin aurreko fasean administrazio publikoetako kontratazio-arduradunen eta enpresen artean elkarrizketa sustatzea proposatzen zuen horretarako.



¹³ ISO 15686-5. Buildings and Constructed Assets, Service-life Planning, Part 5: Life-cycle Costing.



Batetik, hautatutako aukeren bitartez CO₂-isuriari arloan lortutako hobekuntzak balioeste aldera eta, bestetik, produktu edo zerbitzu horietan bizi-ziklo osoko kostuak zenbatesteko aldera –alegia, produktua edo zerbitzua eskuratzen denetik hondakin bilakatu arteko prozesu osoan izandako kontsumoak eta isuriak zenbatesteko aldera–:

- Bizi-zikloaren kostuak kalkulatzeko tresna garatu zen, zeinak hamabost aukera ere alderatzeko aukera ematen baitu.
- Tresna horrek, gainera, produktu edo zerbitzuaren bizi-ziklo osoko CO₂-isuriak kalkulatzeko modua ere ematen du, fabrikazio edo ekoizpenari lotutako «barne-isuriak» ere kontuan hartuta.

Proiektua garatu ahala, zenbait kontrataziotan probatu eta ezarri zen tresna hori, kontratazio-agiria eratzeko fasean bereziki, baita ondoren ere, lortutako emaitzak balioesteko eta egokiak izan direla egiaztatzeko.

Tresna bera eta haren erabilera-gida jaisteko aukera dago honako esteka honetan (gaztelaniaz): <http://www.smart-spp.eu/index.php?id=7444>

Bizi-zikloaren azterlanek argi erakusten dute energia (edo beste baliabide batzuk) kontsumitzen dituzten zerbitzu edo produktuen erosketak berdeak abantaila ekonomikoak dituela, baita ingurumen-abantailak ere, aukera horiek luzaroago irauten baitute eta toxikotasun txikiagoa baitaukate. Abagune bikaina izan daiteke, beraz, bai tokian tokiko ekonomia garatzeko bai irtenbide berritzaileen merkaturak bameratzeko.



Adibide bat, argigarri

Bizi-zikloaren kostu-aurrezpena, energia kontsumitzen duten produktuetatik harago: oinarri urtsuko asfalto-pinturak

Frantziako Gobernuak NF Environnement ekoetiketa dauka, Europako Etiketa Ekologikoaren edo Zisne nordikoaren parekoa.

Frantziako ekoetiketaren bidez ziurtatu daitezkeen produktuetako kategorien artean asfalto-pinturak daude, eta, ziurtagiria lortzeko, batetik, ez dute substantzia arriskutsurik eduki behar eta, bestetik, konposatu organiko lurrunkor gutxi isuri behar dituzte; horiek dira pintura horiek bete behar dituzten ingurumen-baldintza nagusiak.

2007an Frantziako ETE (enpresa txiki eta ertain) bakar batek zuen ekoetiketa hori; horrela, bada, azterlan bat egin zen, ingurumeneko hobeak ziren produktu horiek kostu gehigarririk ote zuten jakiteko. Hauxe izan zen emaitza:

- Halako produktuen erosketaren prezioa, kilo bakoitzeko, haien pareko ohiko produktuena baino garestiagoa da.
- Alabaina, erosketaren prezioaz gain, erabilera-kostuak ere kontuan hartzen badira (bilgarrian zenbat produktu galtzen den alferrik, produktuak zer erabilera-bizitza duen, hondakinak kudeatzeak zer kostua dakarren –kasu honetan arriskurik gabeko hondakinak dira–), ekoetiketa duen produktuaren benetako kostua ohiko produktuena baino -0,20 euro merkeagoa da kilo bakoitzeko. Horrenbestez, produktu berdea ez da ohiko produktuak baino garestiagoa.
- Gainera, oinarri urtsuko produktua denez eta, beraz, arriskurik gabeko produktutzat jotzen denez, lanean ezarri beharreko segurtasun-neurriak eta langileen babes-neurriak txikiagoak dira produktu hori erabiliz gero, eta, ondorioz, dirua aurrezten da.

Iturria: Plan national d'action pour des achats publics durables. Frantziako Errepublikak, Paris, 2007.

Produktuen edo zerbitzuen bizi-zikloa kalkulatzeko, beraz, estrategia eraginkorra da, argi erakusten baitu kontratazioan ingurumen-irizpideak kontuan hartzea, hots, erosketaren alde egitea, ekonomikoki ere eraginkorragoa dela.



3. estrategia

Kontratazioaren bidez ekoberrikuntza sustatzea

Europa ekonomikoki garatzeko eta nazioartean lehiatu ahal izateko ardatz nagusizat aintzat hartuta dago berrikuntza 2000. urtetik. Hala, hazkundea eta enplegua sustatzeko Lisboako Prozesuan, estrategia orokor bat zehaztu behar zela ezarri zen, besteak beste:



[...] ezagutzan oinarritutako ekonomia eta gizarterantz jauzi egiteko, informazioaren gizarteraren eta I+Garen gaineko politikak hobetuz eta lehiakortasunaren eta berrikuntzaren aldeko berregituraketa-prozesua bizkortuz.¹⁴

EBren 2006ko berrikuntza-estrategian jada, berrikuntza sustatzeko tresnatzat jo zen kontratazio publikoa:



[...] kontratazio publikoa hobeto jardutea mesedegarria izan daiteke, merkatuak bere egin ditzan produktu eta zerbitzu berritzaileak [...].¹⁵

Irizpide hori are gehiago zehaztu zen Europako berrikuntza-estrategian, hots «Europa 2020 berrikuntzaren aldeko batasunaren ekimen enblematikoan». Hala, estrategia horren barruan, argiro azaltzen da zer-nolako gaitasuna duen administrazio publikoak aukera berritzaileak sustatzeko eta nolako irabaziak lor daitezkeen kontratazioan aukera berritzaileen alde eginez gero. Horregatik, ekimen horretan zehaztu zenez:



2011tik aurrera, Europar Batasuneko estatuak eta eskualdeek aurrekontuen zati bat gorde beharko lukete bai merkaturatze aurreko kontratazio publikorako bai produktu eta zerbitzu berritzaileen kontratazio publikorako [...]. Horrela, bada, berrikuntzak sustatzeko kontratazio-merkatuak sortu beharko lirarteke [...], haien bidez zerbitzu publikoetan eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko eta, aldi berean, gizarteraren erronka nagusiak lantzeko.¹⁶

Aurretiaz ere esan den bezala, eraginkortasuna hobetzeri eta gizarteraren erronkei aurre egitera bideratutako berrikuntza orok ezinbestekoa du ingurumenaren aldagaia ere barne hartzea, benetako berrikuntza izango bada.

Horiek horrela, Europako Batzordearen agiri batean baino gehiagotan nabarmentzen da aldagai ekologikoa edo ingurumenaren aldagaia kontuan hartzeko eta erosketa berde publikoaren bidez aldagai hori sustatzeko beharra; agiri

horietako goiburuetan maiz eskatzen da, hala, teknologia ekologikoak garatzea eta aplikatzea, ekoberrikuntzak sustatzea eta erosketa berdearen eta berrikuntza-kontratazioaren arloetan prestakuntza ematea eta informazioa trukatzea.

Kontratazioaren bidez ekoberrikuntza sustatzeko egitasmoak:

1. **Berrikuntza-mota ugari barne hartzen ditu**, dena delako estatuko/eskualdeko merkatuan sakonki bameratzerik lortu ez duten produktu eta zerbitzuetatik hasi eta oraindik sortuta egon ez arren kontratazio publikoaren bidez garatu eta merkatutako diren produktu eta zerbitzuetara.
2. **Kontratazio-prozedura bat baino gehiago barne hartzen du**, administrazioaren konpromisoaren zenbatekoaren eta eko-produktu edo eko-zerbitzu horien garapen-mailaren arabera. Hala, kontratazio-prozesu horiek administrazioarako ere izan daitezke berritzaileak (lehia-elkarrizketa edo merkaturatze aurreko erosketa-prozesuak, esate baterako).¹⁷

Prozedura eta aukera ekologiko berritzailea zeinahi dela ere, ezinbesteko urratsa da merkatuaren egoerari buruzko informazioa jasotzea¹⁸, aukera bakoitzaren garapen-maila zein den jakiteko eta bizi-ziklo osoan ingurumenaren zein ekonomian eragin ditzakeen onurak ezagutzeko.

Adibide bat, argigarri

Suediako Errepideen Administrazioak berrikuntza sustatze aldera enpresekin ezarritako lankidetzaren prozesua

Suediako Errepideen Administrazioa –Trafikverket Garraio Administrazioaren barruan gaur egun– Suediako errepide-sarea eraikitzeaz eta mantentzeaz arduratzen da, besteak beste.

Errepideak argiztatzeko sistema da haren arduetako bat, eta, sistema horren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko ekipamendua aldatu edo proiektuak diseinatu behar dituenean, bizi-zikloaren kostuen azterketa egin ohi du plangintza-fasean (ikusi 2. estrategia), instalazio berrien ezaugarriak zehazte aldera. Sistema horrekin lan egin ahal izateko, baina, Agentziak erabilgarri dituen teknologiei buruzko informazioa eduki behar du.

Horregatik, Suediako Garraio Agentzia Energia Agentziarekin lankidetzan dihardu, energiaren ikuspuntutik eraginkorrak diren teknologia aurkitzeko eta haien garapena sustatzeko, teknologia horiek gero errepideak argiztatzeko sistemetan ezartze aldera.

¹⁴ PRESIDENTZIAREN ONDORIOAK. Europako Kontseilua, Lisboa 2000. urteko martxoaren 23 eta 24a.

¹⁵ Jakintzan oinarritutako jarduketak: EBrako berrikuntza-estrategia zabalak COM(2006) 502 azkena.

¹⁶ Europa 2020 berrikuntzaren aldeko batasunaren ekimen enblematikoa, COM(2010) 546 azkena.

¹⁷ Merkaturatze aurreko kontratazioa: berrikuntza sustatzea, Europak kalitate handiko zerbitzu publiko iraunkorrak izan ditzan, COM(2007) 799 azkena.

¹⁸ «Guide on dealing with innovative solutions in public procurement - 10 elements of good practice. Commission staff working document» SEC(2007) 280. Ikusi, orobat, Europako SMART-SPP proiektuko «Impulsando la innovación energéticamente eficiente a través de la contratación. Guía práctica para las administraciones públicas».



Horretarako, deialdi zabala egin zuen Agentziak, interesa izan zezaketen enpresa guztiek beren produktu, ideia eta zerbitzu berritzaileak aurkez zitzaten, jakintza-trukea funtsezkoa baita zerbitzu eta produktu berrien lizitazioa egiteko orduan.

Iturria: Ecoinstitutek landua, posta elektronikoz jasotako eta Agentziaren webgunetik lortutako informazioan oinarrituta (2010).

Aukeran diren eskaintzek ez badituzte administrazioaren beharriaz asetzen, ekoberrikuntzak garatzeko prozesuak bultzatu daitezke kontratazioaren bidez, berrikuntza horien bidez, beharriaz ase eta, aldi berean, irabazi nabarmenak lor daitezke ingurumenaren zein ekonomiaren arloetan.



Adibide bat, argigarri

Berrikuntza sustatuz, zero zabor helburua lortzea Erresuma Batuko espetxeetako koltxoi eta burkoen kudeaketan (Erresuma Batua)

Erresuma Batuko Justizia Ministerioko Espetxe Zerbitzuak bitan banatuta zuen koltxoen eta burkoen kudeaketa:

- Batetik, produktu horien erosketa zentralizatua egiten zen (50.000 ale inguru urtean), baina,
- ondoren, modu deszentralizatuan betetzen zen koltxoi eta burko zaharrak kentzeko eta desegiteko prozesua, sail bakoitzak bere kontratua baitzuen (guztira, 40.000 bat ale eramaten ziren zabortegira, edo erraustu egiten ziren, koltxoiak eta burkoak hondakin sanitariotzat sailkatuz gero).

Koltxoen eta burkoen hornikuntza eta ezabaketa kudeatzeko sistemak, ikuspegi kontserbadoretik, 2,8 milioi liberako kostua zuela zenbatetsi zen (3,3 milioi euro).

Hala, bada, kontuan hartuta hondakinak botatzeko eta ezabatzeko prozesuak kostu handia eragiten zuela, Gobernuak kudeaketa eta kontratazio publiko jasangarria lortzeko helburu zehatzak zituela eta koltxoen eta burkoen hornikuntzarako kontratazio-agiria laster zela berritzailekoa, ingurumen-jasangarritasuna kontuan hartzea erabaki zuen Espetxe Zerbitzuak, egoera horri konponbide egokia emateko, ingurumenaren zein ekonomiaren aldetik.

Horretarako, Forward Commitment Procurement prozesua (erosketa lotu eta ziurtatua) erabili zuen, sektore horretako enpresetan berrikuntza sustatze aldera. Hauxe izan zen Espetxe Zerbitzuak zehaztutako helburua:



«2012an hondakin sanitariotzat sailkatu gabeko koltxoi eta burko guztiak, zabortegira bota beharrean, birziklatzea, birmanufakturatzea edo berrerabiltzea, eta hondakin arriskutsu edo sanitariotzat tratatutako koltxoen kopurua, berriz, % 2 murriztea (orain arte baino modu merkeagoan).»



Kontratazioaren bidez berrikuntza sustatzeko prozesuak bultzatuta, enpresek aukera berritzaileak aurkeztu zituzten. Justizia Ministerioak, azkenik, honako esleipen hau egin zuen koltxoien eta burkoen zero zaborreko kontraturako:

- Zorro-mota berritzailea duten koltxoiez hornitzea. Zorro horri esker, gutxiagotan biratu eta aldatu behar dira koltxoiak, eta ia ez dago hondakin sanitario moduan kudeatzeko beharrik.
- Aldatu beharreko koltxoiak jasotzea, eta arriskurik gabeko «hondakin» horiek zabortegitik instalazio berezi batera eramatea, han birzikla daitezzen, alfonbren eta/edo moketen beheko estalkiak egiteko.

Ministerioak, ondorioz:

- Urtez urtero 40.000 koltxoi eta burko horietatik sortutako hondakinak gutxiago izatea lortuko du.
- Programa horri esker, gainera, bost urtean 4-6 milioi libera (5-7 milioi euro) aurreztu ahal izango direla aurreikusten du.

Iturria: Combe, M. et al.: Addressing the environmental impacts of government procurement. National Audit Office, London, 2009, eta CASE STUDY: Forward Commitment Procurement. HM Prison Service Zero Waste Prison Mattress System, Ministry of Justice, BIS Department for Business Innovations and Skills.



4. estrategia

Eskualdeko garapena sustatzea ingurumenaren zein ekonomiaren arloetan

Kontratazio publikoaren gaineko EBren direktiben helburuetako bat merkatu bakarra sustatzea bada ere, Europar Batasuneko erakundeek berek onartzen dute:



ETEak [enpresa txiki eta ertainak] Europar Batasunaren ekonomiaren bizkarrezurra direla; hala, kontratu publikoetan barneratzen lagundu behar zaie, ahalik eta etekin handiena atera dakion enplegua sortzeko eta hazkundera eta berrikuntza garatzeko duten gaitasunari.¹⁹

ETEei kontratu publikoak eskuratzeko bidea ematea, izatez, onuragarria da ekonomia mantentzeko eta garatzeko, ez modu abstraktuan edo orokorrean, gainera, baizik eta tokian tokiko ekonomian bertan.

Adibide bat, argigarri

Northumberland-eko konderrian (Erresuma Batua) eskualdeko bertako erosketari sustatzeko proiektua eta proiektu horrek Northumberlandeko ekonomian izan duen eragina

Northumberlandeko konderriak, bertako ekonomian zeukan eraginaz kezkatuta, eragin hori neurtzea erabaki zuen, homidura-kontratuen bidez ekonomiari bertako merkatuan zuen eragin positiboa sustatzeko.

Horretarako, konderriko administrazioak, New Economics Foundation erakundearen bidez, azterlan bat egin zuen, administrazioak hornitzaileetan zenbat gastatzen zuen eta hornitzaile horiek gero diru-iturri hori nola erabiltzen eta birbanatzen zuten jakiteko.

Lortutako emaitzei erreparatuta ikusi zuten konderriko bertako hornitzaileek kontratuen bidez lortutako irabazien % 76 batez beste hango enpresetan «berrinbertitzen» dutela. Era berean, azterlanak azaldu zuenez, konderriak bere gastu korrantearen % 10 bertako hornitzaileetara bideratzea lortuz gero, neurri horrek 34ren bat milioi libera (40,6 milioi euro) gehiago ekar zezakeen konderriko ekonomiara.

¹⁹ Europar Batasunaren Jardunbide Egokien Kodea, ETEak kontratu publikoan esparruan barneratzen laguntzeko, SEC(2008)2193.



Informazio hori gogoan hartuta, ETEek lehiaketa publikoetan parte hartzeko sentsibilizazio- eta laguntza-ekintza gehiago sortzea erabaki zuen, eta, ekintza horien ondorioz, boskoiztu egin dira egun konderriko bertako hornitzaileen eskaintzak. Hala, kontratatuen truke ordaindutako 3 milioi liberen ia erdia konderriko bertako hornitzaileetara zuzentzen da egun, eta diru hori, beraz, konderriko ekonomiara bideratzen da.

Administrazioak neurri horiek abian jartzeko denbora gehiago eman behar izan badu ere, denbora hori orekatuta geratu da jasotako eskaintzen kantitateari eta kalitateari esker. Konderriak, hala, hiru urtean kontratazio-gastuaren % 10 bertako hornikuntza-iturrietara zuzentzeko helburua ezarri du.

Iturria: DEFRA (2006). Procuring the Future. Sustainable Procurement National Action Plan: Recommendations from the Sustainable Procurement Task Force. DEFRA: London.

Horrenbestez, ETEek erosketa eta kontratazio berdean lehiatzeko aukera izan dezaten, azaldu berri diren alderdietako bi funtsezkoak dira guztiz:

2. Behar den informazio guztia ematen zaiela bermatzea.
3. Emandako informazioaren kalitatea eta ulergarritasuna hobetzea.

Helburu horiek erdiesteko, administrazio publikoen (eskaria) eta enpresen (eskaintza) arteko informazio-trukea hobetu behar da, betiere gardentasuna eta berdintasuna bermatuta eta diskriminaziorik egiten ez dela ziurtatuta.

Ihobek enpresekin antolatutako foroak, esaterako, xede horren fruitu dira; izan ere, foro horietan, erosketa eta kontratazio publiko berdean lehiatzeko prestatzen dira enpresak (ETEak batez ere); horretarako, behar duten informazioa ematen zaie, betiere kontratazio publikoaren oinarriko legeak eta printzipioak errespetatzen direla bermatuta.

Erosketa berderako informazio- eta prestakuntza-ekintzek, gainera, hobetu egiten dute ETEek administrazio publikoan duten lekua baita lizitazioen beren eraginkortasuna ere.

Europako Batzordearen aburuz, ETEek kontratazio publikoan parte har dezaten sustatzeko, neurri zehatzak hartu beharko lirateke, honako helburu hauek lortze aldera:

1. Kontratuen tamainak eragindako oztopoak gainditzea.
2. Beharrezko informazio guztia ematen zaiela bermatzea.
3. Emandako informazioaren kalitatea eta ulergarritasuna hobetzea.
4. Gaikuntza-mailak eta finantza-baldintzak finkatzea.
5. Administrazio-karga leuntzea.
6. Prezioari soilik erreparatu beharrean, kalitatearen eta prezioaren arteko harremana lehenestea.
7. Lehiaketak prestatzeko behar beste denbora ematea.
8. Ordainketa-epeak errespetatzen direla zaintzea.

Europako Batzordeak, horretarako, kontratazio publikoari buruzko zuzentarauetan aldaketak egitea proposatuko du 2012rako, besteak beste, orain arteko arauak errazteko eta eguneratzeko. «ETEak eta enpresa sortu berriak kontratazio publikoan lehiatzeko aukerak hobetzea» da, hain zuzen, helburuetako bat. ²⁰

Gainera, erosketa berdeari esker eta ETEei kontratazio publikoan parte hartzeko aukera emanez, tokian tokiko garapen ekonomikoa sustatzeaz gain, ingurumenean ere onura nabaria eragiten da, erkidego osoaren eta enpresen lehiakortasunaren mesedetan.



²⁰ Europar Batasunaren kontratazio publikoari buruzko politika modernizatzeke Liburu Berdea. European kontratazio publiko eraginkorragoko merkaturako bidean. COM(2011)15 azkena.

Adibide bat, argigarri

Homitzaileekin jarduteko foroak, Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen estrategiarekin bat

EKPB arrakastaz garatu ahal izateko, ezinbestekoa da sektore pribatuak (fabrikatzaileek zein produktuen banatzaileek eta zerbitzu-enpeseak) ingurumenerako hobeak diren produktuak eta zerbitzuak edukitzea.

Ihobek, EAEko industriaren eraginak leuntzea eta ingurumenari begirune handiagoa dion eskaintza sustatzea helburutzat hartuta, hamar urte luze darama Euskadiko enpresei laguntza ematen (ETEak dira horietako asko), eta, helburu horiek erdiesteko, enpresentzako hobekuntza-baliabideak prestatzen ditu, hala nola Ekodiseinuaren programa edo ingurumena kudeatzeko Ekoscan sistema.

Neurri horiek, ordea, ez dira nahikoak, administrazio publikoek erosketa eta kontratazio berdeko prozesuan eskaintzaren eta eskaeraren arteko koordinazio egokia ezartzeko. Horregatik erabaki zen enpresek ere erosketa berdeko irizpideak zehazteko prozesuan esku hartu behar zutelara eta behar den informazio eta bitarteko guztiak eman behar zitzaizkiela ingurumenaren arloko ezaugarriak zituzten eskaintzak prestatzeko.

Horiek horrela, Euskadin erosketa eta kontratazio publiko berdearen estrategia garatzeko prozesuaren barruan, enpresekin lan egiteko foroak antolatu zituen Ihobek, honako asmo hauek helburu:

- Industriari eta enpresei jakitera ematea zein diren EAEko administrazio guztietako erosketetan bultzatu asmo diren irizpideak erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagokionez.
- Sektore horrekin esperientziak trukatzeko eta parte-hartzea sustatzeko gune bat eratzea, gune hori baliatu ahal izan dezaten zalantzak argitzeko eta zehazten ari diren ingurumen-irizpideak balioesteko, derrigorrezko ingurumen-klausulei lehentasuna emanez EAEko enpresen erantzun-gaitasunaren arabera.
- Sektore horri behar duen informazio guztia ematea, finkatzen ari diren irizpideak bete ahal izan ditzaten.

2007. urtetik:

- Enpresekin jarduteko hamalau foro antolatu dira, Ihoberen EKPBaren eskuliburuan jasotako produktuen gainean aritzeko.
- Foroetan, guztira, 148 lagunek parte hartu zuten.
- Gainera, foro horiek egin eta gutxira, bi baldintza-agiri berri ziren: Ihoberi homikuntza eta zerbitzuak emateko baldintza-agiriak, batetik, eta, Eusko Jaurlaritzaren Uraren Agentzia altzariz hornitzeko lizitazio-agiriak, bestetik, eta aurreko aldietan baino eskaintza hobeak aurkeztu ziren (eskaintzek ingurumen-irizpide gehiago betetzen zituzten gainera), 1. adibide argigarrian jaso den legez.

Iturria: Ihobe 2006tik 2011ra bitartean jasotako datuetan oinarrituta.



5. estrategia

Erosketa bateratuak egitea, eraginkortasuna, aurrezpena eta ingurumen-onura bultzatzeko

Kapitulua hasieran aipatuenez, ingurumenerako hobeak diren aukeretan (edozein produktu edo zerbitzutan) enpresek egin ditzaketen eskaintza ekonomikoak haien merkataritza-estrategiaren mende daude neurri batean. Dena den, ez da hori faktore bakarra, erosketa-bolumenak ere eragin handia baitu eskaintzen den prezioan.

Administrazioak enpresa ekoizle eta hornitzaileetan eragina izan dezan eta, horren bidez, enpresek beren prozesuetan eskalako ekonomia lor dezaten —eta, hartara, produktu jasangarriagoak gizarte osorako prezio lehiakorragoan eskaini ahal izan dezaten—, ezinbestekoa da produktu-bolumen handiak erostea. Gainera, merkatuan ingurumen-berrikuntzak sartu ahal izateko ere garrantzitsua da hori.

«Erosketa bateratuen» bidez administrazioaren kontratazio-ahalmena gehitzea da helburu hori lortzeko estrategiarik onena. Ereduak eta mailak asko dira, hala nola:

- **Administrazio bereko barneko erosketa-sailak**, erabilera orokorreko produktuen eta zerbitzuen hornikuntza bermatzeaz arduratzen direnak (esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Saileko Baliabide Orokorraren Zuzendaritza).
- **Administrazio baterako edo gehiagorako produktu edo zerbitzu jakin batzuetan espezializatutako agentziak** (hala nola Lantik, Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publikoa —Aldundi osorako informatika-ekipamendua kontratatzeaz arduratzen baita— edo udalerrri-multzoko bateko zaborrak jasotzeko eta garbiketara egiteko zerbitzuak kontratatzeaz eta betearazteaz arduratzen diren mankomunitateak).
- **Erosketa- eta kontratazio-zentralak**, estatukoak, eskualdekoak edo tokian tokikoak. Kontratazio-zentralek, kontratu-legeak zehazten duen legez:



[...] beste kontratazio-organo batzuentzako hornidurak eta zerbitzuak eskuratu ahal izango dituzte, edo kontratuak esleitu edo esparru-akordioak egin, kontratazio-organo horientzako obrak, hornidurak edo zerbitzuak egiteko.²¹

- **Behin-behineko erosketa bateratuak**, lurralde berean zein herrialde bateko baino gehiagoko administrazioen artean.

Erosketa-bolumena handituz lortzen den aurrezpen ekonomikoa eta «erosketa berdea» biak bat eginda, emaitza hobeak lortzen dira, hots, ingurumen-kalitateko irtenbide hobeak baldintza hobeetan prozesu horretan parte hartzen duten erakunde guztientzat, baina, batez ere administrazio txikiarentzat, bestela nekez lor baitezakete eskaintzarik prezio lehiakorretan.



²¹ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena. 203. artikulua.

Adibide bat, argigarri

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio-zentrala eta elektrizitate berdearen erosketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), 2011ko otsailean, Gipuzkoa osorako kontratazio-zentrala ezartzea onartu zuen foru-dekretuz, eraginkortasun handiagoa lortze aldera, bai kudeaketa publikoan bai administrazioen arteko lankidetzan.

Kontratazio-zentrala borondatezko sistema da; hala, Gipuzkoako erakundeek hartan parte hartzea erabakita ere, ez dute zertan kontratazio guztietan parte hartu; aitzitik, administrazio interesatuek berariak adierazi behar dute espediente bakoitzean kontratazioan parte hartu nahi dutela.

Abian jarri zenetik, Gipuzkoako 110 erakunde publiko lotu zaizkio zentralari; orain arte, bi lehiaketa egin dira (elektrizitate-hornikuntzarako eta posta-zerbitzuetarako), eta beste lau espediente daude 2012rako programatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskarmentu luzea du kontratazioan ingurumen-irizpideak ezartzeko prozesuetan; hala, hark kudeatzen duen zentralaren helburuetako bat hornikuntza bateratuko baldintza-agirietan ingurumen-irizpideak ezartzea da, eta, xede horren erakusgarri da zentralaren bidez egindako lehen lehiaketa bera, hots, ingurumen-irizpideak barne hartzen dituen hornikuntza elektrikoaren lizitazioa; izan ere, Europar Batasunak energiaren gainean emandako zuzentaraua jarraikiz, baldintza teknikoaren agiri horretan zehaztu zen energia elektrikoaren % 22,1 gutxienez energia-iturri berriztagarrien bidez ekoizti behar dela kontratuak dirauen artean, eta hortik gorako ehunekoak balioetsi ziren lehiaketan.

Lehiaketa horren barruan 87 erakunde sartu ziren (GFA barne), eta hauek izan ziren emaitzak:

- Erakunde guztiek % 100 iturri berriztagarrietatik lortutako elektrizitatea kontratatu dute.
- Erakunde gehienek dirua aurrezteko lortu dute (% 6 ere bai, zenbait kasutan).
- Kasu batzuetan, handitu egin da gastua; hala, Foru Aldundian, esaterako +% 9koa izan da igoera. Emaitza hori, dena den, ez da emaitza txartzat jotzen, prezioen igoera hori merkaturako prezioen igoera baino txikiagoa izan baita hala ere (% 16, 2012ko urtarrietatik urrira bitartean).
- Oro har, enpresa guztiek atera diote etekina kontratazio zentralizatuari: banaka lortuko luketen prezioa baino prezio hobea lortu dute erakunde guztiek batera jardunda, eta, batzuek –kontsumo eta gastu txikiagoa dutenek batez ere– kostua nabarmen murriztea lortu dute.
- Gainera, zenbatespenen arabera, % 100eko elektrizitate berdera aldatuta, 16.279 tona CO₂ gutxiago isuriko dira.
- Era berean, aktibitate handiko hondakin erradioaktiboen 20,15 kg gutxiago sortuko da, eta aktibitate txiki eta ertaineko hondakin erradioaktiboen 0,16 m₃ gutxiago.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako agirietan oinarrituta. Kalkuluak egiteko, bi erreferentzia hartu dira: 78 partaideei zenbatetsitako urteko kontsumoa (73.000.000 kWh) batetik, eta Elektrizitatearen Behatokiak mix energetikoari buruz 2011n jasotako datuak, bestetik.



«Erosketa bateratuek» eskaintza ekonomiko onenez baliatuta, onura ekonomikoak eragiteaz gain, kontratazio-prozesuen beren eraginkortasuna ere hobetzen dute oro har, administrazio-prozesuak ez baitira behin eta berriz errepikatzen, eta biziki garrantzitsua da hori irtenbide ekoberritzaileak topatzeko orduan.

Negozio-aukerak areagotuta, gainera, enpresek interes handiagoa izango dute elkarrizketa-ekintzetan eta ingurumena hobetzeko proposamenetan parte hartzeko, eta enpresa-ehuna garatuko da hartara.

Adibide bat, argigarri

Erosketa berde mankomunatuak Vorarlberg-eko eskualdean, Austrian

Vorarlbergeko eskualdeak, Austrian, 96 udalerrri ditu, eta 365.000 biztanle guztira, eta, 90eko hamarkadan, eskualdeko udaletan erosketa berdea sustatzen hastea erabaki zuen eskualdeko Ingurumen Agentziak (ordura arte hondakinak jasotzeaz eta kudeatzeaz arduratzen zen batez ere).

Horretarako, lehenik eta behin, Vorarlbergeko erosle-sarea zehaztu zuen, arduradunen arteko truke aktiborako. Bigarren urratsean, lehenastuneko produktu- eta zerbitzu-multzoetarako ingurumen-irizpideak ezarri zituzten sarearen kideek. Eskualdearen gobernuaren eta gobernu federalaren finantziarioari esker, 2002-2003an «Vorarlbergeko erosketa ekologikoen zerbitzua» (ÖkoBeschaffungService Vorarlberg) eratu zen azkenik; saiakuntza modura jarri zen lehenik abian, baina zerbitzu iraunkor bilakatu da gero eskualde horretako administrazioetan.

Erosketa bateratuko eskualdeko zerbitzu horri esker, udalek goi-mailako ingurumen-estandarrak dituzten zerbitzuak erosten eta kontratatzen dituzte, bakarka erosiko balituzte baino prezio merkeagoan osotara. Izan ere,

- Administrazio-kostua eta langileen dedikazioa txikiagoa da hartara. Langileek, beraz, beste eginkizun batzuetan eman ditzakete ordu horiek, hala nola beharrianak hobeto zehazten edo kontratuen segimendu hobea egiten.
- Eskakerak bateratuta, prezio lehiakorragoak lortzen dira, eta, hartara, merkeago eros daitezke produktu eta zerbitzu jasagarriagoak.

Probaldia amaituta egindako zerbitzuaren eraginkortasunari eta onurei buruzko azterlanaren arabera, denboraldi horretan erosketa bateratuari esker:

- 800.000 euro baino gehiago aurreztu ziren.
- Kontratazio-prezioa % 3tik % 28ra bitarteko tartean merketu zen.
- Lehiaketak prestatzeko denbora % 20-60 laburtu zen.
- Betiere produktu- edo zerbitzu-multzoaren arabera eta lehiaketa bakoitzeko partaidetza-kopuruaren arabera.

Bestalde, 2002tik 2003ra, administrazio gehiagok egin zuten erosketa bateratuaren alde, izan ere, administrazioek argudiatzen zutenek, sistema horren bidez prezio hobekak lor zitzaizketen eta hobeto kudea zezaketen administrazio-lana, seguruenik 2002ko lehen esperientzia horietan lortutako emaitzei esker.

Bestalde, irizpide ekologikoak ere jaso ziren lehiaketetan eta lege-segurtasunean, eta horixe izan da, hain zuzen, administrazioen partaidetzatik lortutako esperientzia aipagarriena.

Zerbitzua, gainera, eskualdera begira dago egituratuta; hala, eskualdeko merkatua hartzen du kontuan lehiaketetan, eta, ondorioz, enpresa hornitzaileen % 93 eskualdekoek izatea lortu da, eta % 7 baino ez dira eskualdetik kanpokoak.

Hurria: Ecoinstituten landua, azterlan hauek oinarritzat hartuta: Lenz, D.: ÖkoBeschaffungService Vorarlberg.Green Public Procurement Turning policy into practice! Conference (Graz, 2006ko apirila) eta Gemeindeübergreifende Zusammenarbeit Beispiele aus der Praxis.



6. estrategia.

Inbertsio pribatuak erakartzea, ingurumen-onura publikoa sustatzeko

Gerta liteke erosketa eta kontratazio publiko berdearen barruan baliabide naturalak eraginkortasun handiagoz erabiltzera –eta aldi berean, aurrezpen ekonomikoa lortzera– zuzendutako zenbait ekintzak kapital-inbertsio handiak behar izatea, itzulkin-tasa luze samarrekin.

Administrazioek aurrekontu estuak badauzkate eta baliabideak kudeatzeko administrazio-trabaren bat, edo kontratazeko orduan lehenetsuna ematen badiete saneamendu ekonomikoari eta aurrekontu-doikuntzari, arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak izan daitezke ingurumen-eraginkortasuneko neurriak ekonomikoki modu bideragarrian ezartzeko bidea. Oro har, honetan datza lankidetzak-mota hori:



Aginte publikoaren eta enpresaren munduaren artean elkarrekin lankidetzan aritzeko erak dira, eta helburu jakin bat dute, hain zuzen ere azpiegitura edo zerbitzu bat finantzatzeko, eraikitzeko, berritzeko, kudeatzeko eta mantentze-lana egiteko modua bermatzea.²²

Kontratazioari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak²³ 2007an bestelako kontratu-mota bat gehitu zuen, lankidetzak-mota horiei bide emateko; hain zuzen ere, «sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak-kontratuak»; era berean, lege horretan bertan, kontratu-mota horren barruan gauzatu litezkeen prestazioen berri ere eman zen.

Gero eta gehiago erabiltzen ari da jardunbide hori, finantziakzio-sistema horiei esker «kapital pribatuak erabil baitaitezke beharizan publikoak asetzeko, eta botere publikoaren aurrekontu-kargak arindu baitaitezke hartara».²⁴

Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako kontratuek, besteak beste, energia-zerbitzuen eremuan ekar diezazkiokeite administrazioari (eta sektore pribatuari) ingurumen- zein ekonomia-mailako onurak.

Estatuko Administrazio Orokorraren Eraikinetan Energia Aurrezteko eta Energiaren Eraginkortasuna Hobetzeko Planean honela definitu ziren kontratu-mota horiek:²⁵



Energia-zerbitzuak emateko enpresa batekin jarduketa osoa eta bateratua egiteko hitzartutako kontratuak dira, eta honako prestazio hauek barne hartzen dituzte: energia-hornikuntza, energia-kudeaketa, energia kontsumitzen duten instalazioak mantentzeko lanak eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak eta hondar-energiak aprobetxatzeko neurriak betetzea. Kontratuaren iraupena zehazteko, energia-zerbitzuen enpresak egindako inbertsioak amortizatzen behar den denbora hartzen da kontuan, edo, bestela, aurreikusten diren finantziakzio-formulen arabera denbora. Emandako zerbitzuen ordainketa, berriz, eraikinaren energia-eraginkortasuna hobetuta lortutako aurrezpenaren arabera da, neurri batean edo osorik.

Espainiako estatuan Gasteizko Udala izan da eraikineko energia-eraginkortasuna hobetzeko zerbitzu-mota hori erabiltzen aitzindari.



²² Europako Batzordea. Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren eta kontratazio publikoari eta emakidei buruzko Europar Batasunaren zuzenbidearen liburu berdea, COM(2004) 327 azkena.

²³ 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren kontratuei buruzkoa.

²⁴ Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak-kontratuak: PPPren (Public-Private Partnership) analisia.

²⁵ Energiaren Estatuko Idazkaritzaren 2010eko urtarrilaren 14ko ebazpena, zeinetan argitara eman baitzen 2009ko abenduaren 11ko Ministro Kontseiluaren akordioa, Estatuko Administrazio Orokorraren Eraikinetan Energia Aurrezteko eta Energiaren Eraginkortasuna Hobetzeko Plana onartzeko.



Adibide bat, argigarri

Gasteizko udal-erakinen energia-kudeaketa eta mantentze-lanak berme osoz egiteko kontratua

Gasteizko Udalak kontsumitutako energia osoaren erdia inguru udal-erakin eta -bulegoen eguneroko jardunei zegokiola ikusita, udal-erakinetan energiaren kontsumoa murrizteko eta haren eraginkortasuna hobetzeko neurriak ezartzea erabaki zuen.

Horretarako, energia-zerbitzuak kontratatzeko lizitazio bat egitea erabaki zuen 1999an, sektore pribatuarekin lankidetzan eraikinetako ingurumen-ezaugarriak hobetze aldera, eta halako lizitazio bat egiten lehena izan zen Estatuan.

«Udal-erakinetako berokuntza- eta klimatizazio-instalazioak eta ur beroarenak energetikoki kudeatzeko eta mantentzeko berme osoko kontratuak» hamar urteko iraupena izan du, eta, haren bidez, udal-instalazioen ingurumen-ezaugarriak hobetzea lortu da, kontratua esleitzen zaion enpresaren finantziarioari esker, zeinak egindako inbertsio hori berreskuratu egin baitu dagoeneko, hamarkada horretan lortutako aurrezpenari esker.


Udalari dagokionez, hainbat izan dira onurak: segurtasuna handitzea, energia aurrezte, atmosferara igorritako isuri kaltegarriak murriztea, erosotasuna areagotzea, zerbitzuaren kalitatea hobetzea, ondarea hobetzea, teknologia berriak ezartzea, araudi berrietara egokitzea, kontratuari atxikitako langileei sistema berrietan trebatzeko etengabeko prestakuntza ematea eta energia-zerbitzuen enpresak sustatzea.

Hona hemen lortu diren emaitzetako batzuk, zifretan:

- Kudeaketa zentralizatua egitea lortu da 320 eraikinetan (181 izatetik 320 izatera igaro dira 2008an).
- Instalazioko osagaiak artezteko mantentze-lanak gutxitu egin dira (egunean 25 abisuko matxura-tasa izatetik, batez beste 4 abisu izatera igaro da), eta prebentzioko mantentze-lanak handitu.
- Instalazioen bizitza erabilgarria, %50 luzatu da ia, 1999. urtetik (14-15 urtekoa izatetik 22 urtekoa izatera igaro da).
- Zerbitzuaren kostu osoa ia % 10 murriztu da (instalazio guztien energia-kudeaketa eta mantentze-lanak, instalazioak berritzeko inbertsioak eta erregai-homikuntza).
- Jarduera areagotu egin den arren eta kontratuan barne hartutako eraikinen kopurua handitu, 2.250 tona CO₂ gutxiago isuri da 2007. urtean 1999an baino.

Iturria: 26. jardunbide egokia. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua. Euskadiko administrazio publikotik bere ezarpenerako eredu eta adibideak. IHOBE, Bilbo. Ikusi, orobat, Donostiako 15. jardunbide egokia.

Kale-argiteria da energia-zerbitzurako kontratuen beste aplikazio-eremu bat, eremu horretan ere hobekuntza nabarmenak egin baitaitezke ingurumenaren zein aurrezpen ekonomikoaren ikuspuntutik.



Adibide bat, argigarri

Lilleko (Frantzia) kale-argiteria: ingurumenerako aukera hobek erabiltzeko kostuetan izandako eragina

Lilleko eta hari uztarturiko Hellemmes eta Lomme udalerrietako kale-argiteriaren sistemak, guztira, 22.500 argi-hargune ditu, eta hargune bakoitzaren urteko gastua, batez beste, 210 eurokoa da (zergak barne).

Hala, bada, argiteria-sistema hobetzeko energia-zerbitzuak kontratatzeke lehiaketa prestatu zuen Udalak, energia-kontsumoa jaisteko eta udalerri horietako argi-sistemak eragindako kutsadura murrizteko xedez, betiere zerbitzuaren kalitatean eragin kaltegarririk izan gabe. Lehiaketak zortzi urteko iraupena zuen (2004tik 2012ra), eta honako betekizun hauek barne hartu zituen:

- Energia-homikuntza kudeatzea.
- Ordura arteko ekipamenduen ordez, pixkanaka-pixkanaka, kontsumo hobeko ekipamendu birziklagarriak jartzea.
- Argiztapen-maila benetan behar den maila horretara egokitzea, zenbait gunetako gehiegizko argiztapena doituta.
- Argiteriaren argi-galera eta argi-kutsadura murriztea (globo-formakoetan bereziki).

Lehiaketaren ondorioz, instalazioak, argiak eta lanparak berritzeke kostua bikoiztu egin zen ia (kale-argiteriaren guztizko aurrekontuaren % 30etik % 60a pasa zen). Energia-kontsumoaren eta mantentze-lanen ataletan, ordea, gutxitu egin ziren kostuak, eta gutxi gorabehera % 38 eta % 32koak izatetik % 19 eta % 21koak izatera igaro ziren.


Udaleko datuen arabera:

- Kontratuaren zortzi urteak igarotakoan, % 42ko murrizketa lortuko da energia-kontsumoan, eta, hari lotuta, CO₂-isuriak eta energia-sorkuntzaren bestelako eraginak ere murriztu egingo dira.
- Izatez, kontratuaren hirugarren urterako, dagoeneko, energia-kontsumoa % 30 murriztea lortu zuen Udalak.
- Energia gutxiago kontsumituta eta mantentze-lanak murriztuta lortutako aurrezpen ekonomikoari esker, gainera, orekatu egingo da instalazio berrien gaitasuna, eta, orotara, argi-hargune bakoitzeko urteko gastua 10 euroan murriztea lortuko da; alegia, urtean 225.000 euro aurreztea lortuko da guztira, eta aurrezpen hori, gainera, handiagoa izango da elektrizitatearen prezioa igotzen jarraitu ahala.
- Datu errealetan oinarrituta, kontratua abian jarri eta hiru urtera, Lilleko udalak, ordurako, % 47 murriztua zuen jada gastu arrunta.

Iturria: Plan national d'action pour des achats publics durables, Paris, République Française, 2007, eta Tessema, F. and Marsille, C.: Practical insights and illustrative examples on Sustainable Public Procurement, Case Studies from Europe, SuPP-Urb-China Paper No. 3_EN/CN. (2009) CSCP, Wuppertal.

Kontratazio berde horren bidez, energiak ingurumenean eragindako arazo larriak leuntzea eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea ez ezik, jarduketako kostuak murriztea ere lortu du administrazioak, kudeaketa-kostua areagotu gabe.

Zerbitzu energetikoak kontratatzea, beraz, erosketak berdearen barruan jasotako beste estrategia bat da, ingurumenean dugun eragina murrizten laguntzen baitu, eraginkortasunez betiere ekonomiarik dagokionez.







ONDORIOAK

EKPB baliabideak (naturalak zein ekonomikoak) eraginkortasun handiagoz erabiltze aldera

Bai aurreko testuinguru politikoan bai oraingo heretura-testuinguruan, Europar Batasunaren hazkunde-politika orok ezinbestekoa eta nahitaezkoa du baliabide naturalak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzea.

Europar zein Euskadin, EKPB oinarritzko baliabidea da, ekonomia berdea sustatzeko eta baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzeko, baina, horrez gain, funtsekoa da, orobat, aurrezpen ekonomikorako, hau da, gastu publikoan ere eraginkortasuna lortzeko.

Nahiz eta, hastapenetan erosketak eta kontratazio publiko berdeak eragindako zalantzak haren garapena oztopatu, gaur egun, zalantza guztiak argituta, funtsezko tresna bilakatu da Europar Batasunaren lehiakortasun ekonomikoa eta garapen JASANGARRIA bermatzeko.

Gainera, azken hamar urteotan metatutako esperientziari esker, badakigu, jakin ere, erosketak eta

kontratazio publiko berdea garestiagoa dela pentsatzea aurreiritzia dela errealitatea bainoago.

Izan ere, lehenik eta behin, kasu askotan, erosketak eta kontratazio publiko berdea zuzenean ere ez da garestiagoa; bada, eskaintza ekonomikoetan inguruabar asko dira kontuan hartzekoak, produktuaren beraren prezioaz harago: hornitzaile bakoitzaren merkatu-baldintzetatik hasi eta obra edo zerbitzua betetzeko inguruabar zehatzetaraino. Horrenbestez, aldagai askok eragiten dute prezioa ezartzeko eta eskaintza ekonomikoa egiteko orduan; hala, aurkeztutako kasuetan argi geratu denez, aukera berdeak izan daitezke, halaber, aukera ekonomikoak.

Bigarrenik, eskuratze-kostua soilik kontuan hartzea epe laburreko ikuskera zatikatuaren ondorio baino ez da, eta, ikuskera horretan oinarriturik, nekez aurre



egin ahal izango zaie gaur egungo erronkei. Dena delako produktu edo zerbitzuak haren bizi-ziklo osoan Administrazioari eragingo dizkion benetako kostuei erreparatuz gero, ikusten da askotan aukera «berdeak» hasieran garestienak diruditen arren, izatez aukera horiek direla onuragarrienak, ingurumena begirune handiagoz zaintzeaz gain, eraginkortasun handiagoz kudeatzen baitute gastu publikoa.

Txosten honetan barrena erakutsi denez, EKPBk, haren ezaugarriei eta ikuskera orokorrari esker eta kontratazio-legean jasotako zenbait bitartekoren bidez garatuta, ingurumen-eragin kaltegarriak murrizteko bide ematen du, eta baliabide naturalak zein ekonomikoak eraginkortasun handiagoz erabiltzera bultzatzen du.

Azken batez, EKPBren bidez ezartzen ditugun mekanismoek eta planteamenduek ez dute herstura edo eraginkortasun ekonomikoaren aldeko politiken kontra egiten; aitzitik, sustatu egiten dituzte:

- erosketa eta gastu publikoa (errealak eta osoak) hobeto kudeatzen laguntzen baitute, murrizketarik ezarri gabe,
- ondorioek luzaro irauten baitute,
- ingurumena beti babesten baita, eta, hartara, egun ingurumena kontuan ez izateak etorkizunean ekarriko lituzkeen ondorio latz eta eragin ekonomiko kaltegarriak saihesten dira.



